

# Zeruko ARGIA



INDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426686 - PREZIOA 7 PEZETA

## GURUTZ ANSOLA, EKONOMILARIA

NON ZER	
● LEIALTASUNAK	
Bujanda .....	3 garrenean
● NORAINOKO SIMETRIA KOMENI?	
Larresoro .....	3 garrenean
● EGUN EGUNEKOA	
Ibargoiti .....	3 garrenean
● INDARRAREN ESKUBIDEAK	
Ansola .....	5 garrenean
● LIBURUAK	
Lertxundi .....	7 garrenean
● ELIZA ETA JESUS NAZARETHARRA (II)	
Mujika .....	11 garrenean

### Irakiten dagoen dolarraren arazoaz mintzo da Jokabide berria: jakintzuak euskeraz idaztea

Azpeitian jaioa dugu Gurutz Ansola, 1924 Maiatzaren 2an. Bilbao eta Valladolideko Unibertsidadeetan ikasi zuen. Ekonomi-irakasle dugu Donostiako E.S.T.E.n. «Egan», «Jakin» eta batez ere «Zeruko Argian» idatzi ohi du. Hitzaldi asko eman izan ditu euskeraz **Ekonomiari buruz, Europaren elkarteaz, eta Herri erdi hazien ekonomiaz.** Badu «Europa» deituriko liburuan ere **Europaren bidekurutzetan** izeneko lan bat argitaraturik. Besteak beste bi liburu sendoren egile dugu: **EUSKAL HERRIKO EKONOMIAZ** eta oraintxe bertan azaldu den **USA-REN AGINTARITZA ETA DOLARRAREN AHULEZIA**, bi liburu interesgarrien idazle.

Euskal kulturari eskainitako gizona dugu GURUTZ. Lehenik amaren bularrean xurgatu zuen kultura hori, Izarraitz mendiarren hegalean. Geroztik euskal-kultura-gintzan dihardu eten gabe. Batez ere bere gaien, ekonomia arloan, ari da kultura euskalduntzen. Amarengandik jasotzen zuena eta euskal liburu zaharretan aurkitu duena du bidelagun kulturagintza hortan. Herri-literaturan eta literatura idatzian oinarritutako lana egin ohi du.

Utz ditzagun, ordea, gorazarreak, ondo mereziak izan arren eta has gaitezen zirika-mirika galdezka. Ez dirudi elkarrizketa honarako gogo gehiegirik duenik, baina, tira, aterako diogu zerbaite.

—oOo—

—Liburuaren egile zeranez, nolaz aurkeztuko zenduke **USA-REN AGINTARITZA ETA DOLARRAREN AHULEZIA?**

—Liburu hau, lehendabizi, irakasle baten liburua dugu. E.S.T.E.-ko laugarren urtekoei «Nazioarteko ekonomia» irakasten diet. SAIL honetan, teoriak eta dotrinak ezezik, munduko ekonomiaren berri ere eman behar izaten dut. Aldi honetan, agi denez, «Dolarraren arazoak» bizi bizi dabila mendealde guztian. Eta, jakina, programaren atal handi bat arazo honi emana diot.

—Zure irakaspenera, ordea, ze dituzu, noski euskeraz ematen. Beraz, zer dela eta jarri dituzu euskeraz? Ez da, bada, erderaz dituzun lanetatik euskeratua izango?

—Egia da, bai, E.S.T.E.-ko irakaslan gehienak erderaz egin beharrean aurkitzen naizena. Hala ere, liburua jatorriz euskalduna da. Ez dut, ez, erderatik itzuli. Euskaldun sortu eta jaio da.


—Euskal Herrian, zoritxarrez, gutxi izan dira jakintzu eta irakasleen artean jokabide hau hartu dutenak.

—Jokabide hau —euskal irakasleok gure obrak euskeraz burutzeko eta egitea, alegia—, jokabide berria dela esan genezake. Baina ez dut esan nahi, jokoera honetan

ez lehena, ez bakarrena naizenik. Zorionez, bagara zenbait irakasle, gure irakaspenera eta gure ikertzearen euskeraz azaltzen eta idazten hasi garenak. Izenak ere emango nituzke, baina ez dut inor ahazturik utzi nahi, eta horregatik honetan utziko dugu. Halaz ere, aitortu nahi dizut nere jokabide honekin esenplu bat eman nahi izan dudala. Gero eta irakasle euskaldun gehiago ditugu Goi Mailako Ikastetxeetan. Kontu egizu zenbaterainoko uzta bil dezakegun, baldin euskal irakasle oro, bere alorrean, jakintza, zientzia eta filosofia euskeraz gatzatzen eta euskeraz idazten hasten bada.

—Badirudi, zure iritziz, eman daitekeela gaurregun euskeraz edo zer gai, jakintzari zor zaiion goitasuna eta zehaztasuna galdu gabe...

—Euskeraren eta jakintzaren artean bada behaztoporik eta zailtasunik. Egia esan, ez da batere erraza, gaia goraki eta zehazki euskeraz garbian ematea. Baina zertan datza traba eta behaztopoa? Euskeraren baitan? Ez. Traba eta zailtasuna hontatik dator: gure ez jakitatetik. Irakasle batek, bere gaiaz ongi jabeturik dagoenean; zerbaite esateko baduenean; euskeraz jaulki behar du bere emankizuna. Euskaltzalea baldin bada, noski. Egia da, aldapa gora gogor



egin beharko duela, bere gogoeta eta jakintza euskeraz adierazteko. Egia da, hein handi batetan, lan kreatzailea egin beharko duela; euskal literatura, luze eta zaballean, ezagutu behar duela; irakasle nahiz jakintza bakoitzak «bere hiztegi berezia» osatzen saiatu behar duela. Beraz, jakintza baldin badu eta euskaltzale baldin bagara, gure hizkuntzak ez gaitu mugatuko, hizkuntza azkenik gabeko iturburua bait da, haren urbideak miazten dakienarentzat.

—Baina badirudi irakurlekoak ez zaituela gehiegi kezkatzen.

—Laburki hauxe esango dizut. Gure liburuetan eta idazlanetan darabilagun gaia jakinarrria denean, gure herriko nahiz munduko arazo edo hauzi biziren bat lantzen dugunean, irakurzaileak gaiak

berak ernatzen ditu. Nere lehenengo liburua, esaterako, nik badakit Unibertsitate anitzetan aztergai erabili dutela irakasle gazte euskaldunek; baita badakit langile taldeek ere erabili eta ikasi dutela beren ikas-saioetan. Bigarren liburu honekin ere hori bera gertatuko dela ziur nago. Batipat Ekonomia-ikasleek liburu hau irakurri eta ikasiko dute, berdinean nahiago bait dute euskeraz ikastea, ezen ez erderaz.

—E.S.T.E.-ko zure lanak aipatu dituzunean, iragaitzen bezala, zera entzun dizut: «E.S.T.E.-ko irakaslan gehienak erderaz egin beharrean aurkitzen naiz». Euskeraz ere zerbaite irakasten duzula esan nahi al du horrek?

—E.S.T.E.-ko ikasle guztiak ez dira euskaldunak. Beraz gure lan

akademikoak erderaz eman beharrean aurkitzen gara. Baina euskeraz ere, zerbaite bederen, hasiak gara. Daramagun ikas-urte honetan, hain zuzen, «Euskal Ekonomiaren Mintegia» sortua dugu eta eztabaida oro euskeraz eramaten dugu. Aitortu behar dut, Donostiako E.U.T.G. honetan, beste «Euskal mintegi»rik ere badela. Jakin-garriena, halabaina, zera da: irakasleak berak izan direla «mintegi» hau sorrarazi dituztenak. Eta honekin, hasierako puntuari lotuko natzaio berriro: irakasleok, geure lanak euskeraz agertzen saiatu beharra daukagu. Gazteak, unibertsitariak nahiz langileak, euskeraz irakurri, pentsatu eta ikasi nahi bait dituzte heziera-aldiko ikasgaiak.

—Argitara berria duzun liburua itzuliaz, ager ahal zenezake, laburki, zure lanean lortu duzun aurkikunderik nagusia?

—Nere liburuen lehen parteak USAko ekonomiaren azterketa estrukturala da. Zati hau azkena ezar nezakean, baina, aurrea, ipiniaz, hauxe adierazi nahi izan dut. Dolarraren krisia ez dago ulertzirik diru-erakunde soilari behatuz. Aitzitik, USAko gizartearen, politikaren eta ekonomiaren «batasuna» kontuan edukirik uler daiteke, eta ez bestela, munduko agintari denaren kinka larria. Honez gain, beste zerbaite ere esan nahi nuke: USAren larrinnea esplikatzeko, gauza txit eroso da, «imperialismoaren eskema» zaharkitu bat hartu eta errealtatearen alde bizi sare mehar batzuetan, bortxaz, nahi izatea. Nire inbestigazioan, ordea, zera aurkitu dut garbiri, hots, delako «USAren imperialismoan» ez dandela oligarkiak bakarrik, aitzitik langileen sindikato anitz ere «bere erresumaren altxoan» gogara dandela, itxuraz, eta bere aberriaren imperialismoa barrundik lehertarazteko ahalegin guti egingo dutela, oraingoz...

—Dolarra gora eta dolarra behera ari da mundu guztia. Zertan datza, zurekiko, dolarraren ahuleziaren sustraia?

—Ahuleziaren sustraiak anitz dira, agi denez. Hontaz, ordea, artikulatu bat emana dut Z. Argian aste honetan ateratzeko. Beraz ezin hasiko naiz gauza bera bi aldiz esaten. Beste lan hortan irakur ahal izango du nahi duenak hontaz dudana iritzia.

Gurutz oso presaka dabila. Lanaz leporaino beteta dago. Ez diogu denbora gehiago kendu nahi. Gauza hauek denak jakin nahi dituenak hor danka GEROn Gurutzten USA-REN AGINTARITZA ETA DOLARRAREN AHULEZIA liburua. Askorentzat oso ezezaguna den munduaren berri ematen digu bertan. Merezi du irakurteak.

## BERTSO BERRIAK

## Nere Bordatxotik

Nixon lendakariaren (presidentearen) mandatari ta esku-biko eskua dan Kissinger jauna Hanoi aldetik ibilia da.

Viet-Nam zutitzeko, berritze-ko ta indartzeko, esku zabalez lagunduko omen du Ipar-Amerikak (Norte-Amerikak).

—oOo—  
Jaunak, nun degu zentzua eta nun degu ezaguera? txotxotzen ari gera gizonok egunetik egunera. Ikusten ari gera oraintxe amaikatxo gorabera, dana benetan artzen badegu erotu egingo gera.

—oOo—  
Amerikarren biotza nurbait aibesteraño bigundu, len zakar-ontzi utsak ziranak orain erabat leundu. Orrelakorik gerta zeikenik sinisteak ere lan du, dana puskatu lendabizi-ta, ondorenean konpondu.

—oOo—  
Bizi diranak pasatakoaz ezira errez aztuko, pentatsen duen dana ezute laguntzailletat artuko. Erri berri bat zutituraren danak ezitu pozuko, kulparik gabe ildako aiek berriz ezira piztuko.

—oOo—  
Esaten dute angoo pakea egin samarra dagola, baleike baiña, nere buruan ezin sartu da inola. Zeinek pentatsu tratu klase au egin bearra zegola? orretarako ixuri al du milloika jendeak odola?

—oOo—  
Danen gustora euririk inoiz ezuela egiten, aspalditik daki-guna da. Guk idatzitako zerbait etzaio gogozko izan "Zeruko Argia'n" Azpeiti'ko berriak argitaratzen dituen "Anatsan" jaunari.

Ze egingo degu ba! Au izan dedilla okerrik aundiena. Danok berdin-berdin pentsatuko bagendu, mundu aspergarria izango litzake gure au, lenez gainera.

Baiña, Azpeiti'ko berriema-leak bide ederra eskeintzen di-gun ezker, goazen ardatzari el-tzera.

—oOo—  
Nola itzez ala kartaz, ainbat zorion jaso degun garaian, gure "Anatsan" —guk eztakigu nor dan— kontrakurpillean datorrigu.

Guk ez genduen ze esan txi-kienik Otaño ta "Urreta" aizko-lariei buruz.

Egurak etzeudela kondizi-otan jarriak, esaten genduen "La Voz'eko" eskal saillean.

Aurretik datozen oiturak be-te ezean, nai duenak nai duena egitekotan, gure eskal jokoak joan dirala pikotara.

Itz berdiñez ezpada ere, au da guk agertu genduen.

Arau edo erreglamentu bat jartzea ezer gutxi kostatzen zaiola Gipuzkoa'ko Federazio-ari.

Alkar neurri nai duten guz-tiak errendi ditezela errega-mentu ortara.

Ori egin nai eztenei ate da-nak itxi bear zaizkiela, gure iritzi.

Au da guk idatzi genduen. Eztaukagu, gainera, bost xen-timoren damurik ala idatzia.

—oOo—

"Anatsan'en zati bat: "Alabaina, "Basarri'ren" "Ata-laya" irakurri degunean, gure harridura ez da ttipia izan".

Gu bi aldetatik arritu gaitu-zu zuk. Darabilkizun euskera aldetik, eta ematen dituzun arrazoi-bideengatik.

Ba-dakigu "harridura" itzak Azkue'ren iztesian toki duela, ta Duvoisin'ek erabiltzen zuela. Azpeiti'n eta Gipuzkoa'n zen-batek?

Au da gutxienekoa. Arira ez-tatorrena baita.

Ikusten danek, zuk, "Ana-tsan", "Basarri'ren" lan baka-rra irakurri zenduen. Geroztika-kako jarraipenik ez, noski.

Bestela etzenduen Santos "Errekartexo" ta gaitontzeko-rik aiatatu bear.

Legezko eziran egurrak eta legezko eziran arriak, danak kondenatu zituen "Basarri'k". "Gaur erabiltzen diran arriak ezte lengo usuario zarrekoen antzik".

Egi osoa diozu ortan. Baiña aurretik idatzi genduen guk (ondotxo aureragotik) usa-rio zarrekoen antzik ezteuten arriak ez lirakela ametitu bear gure plazetan. Au eztago, or-dea, "Basarri'ren" esku, Gipuz-koa'ko Federazioaren esku bai-zik.

—oOo—  
Ondo aurkitzen al dezu zuk arri ziindroetan bi klase ego-tea?

Zergatik bat xixtima zarre-koa ta bestea berrikoa?

Xixtima berriko arriak, arri zilindroak al dira?

Sa... zilindroak ezpadira, zer-gatik daramate izen ori?

Nai duenak nai duena auke-ra dezala joko egiterakoan.

"Erretangular" edo "kuadroa" deitzen zaiona, zilindroa, boro-billa edo kubikoa, baiña izan ditezela izenaren jabe.

Gizaldiz-gizaldi gugana iritxi diran arauak bete ditezela, ta katurik eztezaigutela eskeini erbitzat.

Au zan guk eskatzen gendu-ena. Baita eskatuko ere, alpe-rrik bederen.

—oOo—  
Zutikako egurrak ebaki izan dirala gure plazetan?

Au eztakienik eztago inor; ez-tiguzu mundu berririk agertzen.

Baiña, guk zutik ebaten iku-sitako egurrak borobillak izan dira beti, ta ez ziritutakoak edo ziri antzekoak.

Gainera, aurrez adierazten zaio jendeari Australia'ko eran jokatzera dijoazela. Ez jakinean inor ezta joaten plazara ala-korik danean.

Inork esan al du Otaño ta "Urreta'ren" egurrak neurritz osatuak etziranik?

Au bakarrik naioa al da gauzak legez egiteko?

—oOo—  
Egizu kontu eskuzko lau pe-lotari onenak jokaten dirala frontoi batean. Bete da jendez pelotalekua, aiek ikusteko ega-ri biziz, eskatutako sarrera pa-gaturik.

An gaude danok erne ta arre-taz partidu zoragarri bat ikusi asmoz.

Alako batean, ekiten diote lanari, ta gomazko pelotarekin.

Arrazoi aundiz, frontoi arta-ko marmarrak ez luke azkenik izango.

Asiera ta azkena izango li-tzake.

Berdintsu da ba, "Anatsan", egurren eta arrien arazoa.

Arrastoa zuzen ibili, edo ba-terez bestela.

Etzaidazula teknikaren "bote-rea" aiatatu. ("Boterea" itz au ere zenbat euskaldunek uler-tzen dute?).

Oso banakak mugaz onuztik, baiña beti ikasten ari gera zer-bait.

Egiturak aldatzea beti da kaltegarri, gai auetan beintzat.

Ontan etzazula dudarik egin. Gai auetan eta beste askotan. Garbi asko ari da ikusten ze-aro itxua ezta.

Zer jokera ta mani negarga-rrari artu du jendeak lendandik datorren dana lurperatzeko?

Ezer ez ote zuten itxuraz egin gure aurrekoak?

Aizkora, arrijasotzea ta bes-te zenbait eskal joko, ezira atzo goizekoak.

Plazetan aizkora ta arria iku-si nai dutenak, lengo usarioa ikustera dijoaz.

Ala izan ezik, motozerrak eta gruak ikustera joango lirake.

"Flamenkoa" entzun nai du-ena dijoala Andaluzia'ra.

Bertsolariak nai dituen da-torrela Euskalerrira.

Gauza bakoitzak bere tokia du. Ontaz kanpo, bere arau edo erreglamentua. Bete nai ezteu-nik ezta ontzat artzen ez Pe-kin'en eta ez Amezketan.

Au gogoan izan, "Anatsan" maite orrek.

**BASARRI**

Kalean babak egosteak ala ba-serrian ereiteak zeñek geiago irau-go ote du gure lurrean? Biak di-tugu zaarrak eta orain zaar danak bazartzeko giroa, moda dugu.

—1—  
Lengo ostiralean, bestetako gisan, peririk etzan baña peri eguna zan. Nekazari zintzo bat beti dana izan. zer egiñak egiten kalean izantzan. Bere zenbait naigabe aitzen egon nintzan.

—2—  
Euskal erri maiteko baratzkiak gera. Ba datorrela gaude naioa galeral Sinistutzeak ere au lanak ba dira. Nekazaritza dator gutzit goitik bera. Ixtantean jetxi da irutikan bira.

—3—  
Bera nekazaritza trebea izana, baña gaur urteetan gora dijoana. Iru seme sasoi-ko etxean dituna. Etzaio begizkoa aien etorkizuna. Pozikan gabe dago batere gizona.

—4—  
Irutikan birekin dadukan problema:

ori da ikasitzen dabilzna danena. Irugarrenarekin ez dauka onena, kale usain gozoak iristen zaizkona: au da nekazaritza bera dakarrena.

—5—  
Ikasle biak gatik aiatatun esaten, pentatsen bere arte nola dan egoten, ez dakilla nolatan zitezkean irten, basarrian sortuak orrela izaten, solara ez agintzeko zeozer ekarten.

—6—  
Irutik erdikoa etxean lagunik; aiatatun jarrita daukanik. Arek berriz lagunak kalean izanik; aizea ote duan arzen aiengandik. Beldur da ez ote duan egingo gauz onik.

—7—  
Larunbata kalean gaur izaten da jai. Lagunak juten zaizka mutillari noiz nai. Lana egingo dunak. ezpaudu ori gai, aiatatun ere ez luke orrelakorik nai; inoiz emanak dira denak erasoai.

—8—  
Aiatatun esan «zertara etorri ez dago; emen ezta kalean aibeste sosego; larunbata lan in bearra dago, ostiralean baño askotan geiago». Besteak erantzuna: «orañ'e or al ago?»

—9—  
Orañ'e or al intzan? agure zekena, semientzat biotzik bate eztekena. Semea astoen gisa lana iten dikena. Ordubete gaitzeak ematen dik pena. Luzaroko ez aiz, ez, laister dek azkena».


—10—  
Aiten tripa jatea ori ikustian; lanean nekatur bizitza gutzian; pozik agertzen zana orain aibestian. Luzaroko ezala berari esatian, ori bai dala artzea bat ezin bestian.

BASARRI jauna:

Zuretzako goikarri samarra ger-tatu ez nedin kezka pixka bat ba det, ala ere sortzen da ba beti zerbait ez duna uzten paketan da... Bertso batzuk bialtzen dizkitzut zuk deritzatun aldetik argitara al di-tzatzen itxaropenarekin. Eskerrik asko. Zure serbitzari.

Jose Manuel Arriola

# ZOZKETA 3 BIZITZA



Iru bizitzako zozketa ontan Noiznaiko, Bizitzako, Erbesteratuen ta Aldi-jakiñeko kartillak sartuko dira. Martxoaren 11 arte jartzen diran

milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko, milla pezeta sartuezkero.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**



## KOPERATIBAK

Lanean ari direnako zenbait, gure Errian, batzuk oso koperatibazale eta besteak oso etsai agertzen zaizkigu. Umeak ere badakite izena berenik.

«Jakín» ausartu da, elkar lanean, gai hau aipatzen. Suezia, Yugoslabia, Israel, Quebec et Euskal Erriko koperatibak aztertzen ditu.

Izan ere garrantziko gaia dugu Euskal Errian. Asko indartu eta zabaldu dira uste gutxitan koperatibak.

Baina aipa ditzagun itz bitan koperatibaren elburuak eta koperatibaren aurkako iritziak.

Koperatibaren ametsa ez da ekonomia sendotzea bakarrik. Gizarte bera nahi du aldatu eta berritu poliki poliki. Gizona gizonago izango den gizarte eratu nahi du. Gizona egin nahi du bere buruaren jabe. Horregatik erabaki nahi dira lantegiko gorabehera guztiak denen artean. Bazkide bakoitzaren iritziak eta erabakiak balio du, ez diruarenak. Gehien iritzi-kopuruak agintzen eta erabakitzen du.

Gizarte berdina, zuzenago eta askatuago bat du gogoan. Ez du diruare net jauntxokiarren mende dagoen gizarte hau onartzen. Horregatik ekin dio poliki poliki aldatzeari.

Baina ez dezagun uste bazkide guztiak, koperatiba-lantegian lan egiten duten guztiak, alegia, hau bizi dutenik. Sortzaileen suia eta ametsa ahuldutz joan ohi da. Ez dute askok eta askok izpiritu hori bizi. Sarritan diruari begira ipiniarazten ditu ezin iritziak eta zorrei ezin erantzunak beste asmo batzukin asi zirenak ere. Berehalaxe itzaltzen dira ametsik ederrenak ere ezinaren aurrean.

Eta jakina lantegiak, koperatibak, lehenik ekonomia bereganatu behar du, sendotu eta indartu. Bere burua jaso behar du. Asko eta asko, berriz, zulo hortatik ezin irtenaz dabilta. Bizi nahiak eta iraun nahiak estutzen ditu gehiegi.

Halaz guztiz ere bizi dira. Eta bizi direlako dituzte etsaiak. Ez denak eta il zenak ez bait du etsairik.

Bazkideen edo koperatibazaleen izpiriturik ezaz kanpo bi etsai nabarmen ditu koperatibak.

Dagoena dena ondo dagoela uste dutenak daude oso aserre. Hauen ustez gizarte lehen ere oso ondo antolatua dago. Ez dugu lehen baino obeto jarriko. Aldatzen eta berritzen asi eta lehen baino askoz ere okerrago jarriko arrisku galanta dargu. Gorde dezagun ondo lehengoak. Eutsi diziagun dankagunari.

Ain zuzen koperatibazaleak dabilta beste batzuren artean dankagun gizarte hau aldatu eta berritu nahirik. Horregatik berenganatu dituzte konserbakor guztien gorrotoak eta erasoak.

Baina horrenbeste ur bedeinkatu gabe, orpo-orpotik, gizarte azpikoz gain jira eta irauli nahi dutenek ere oso daukate aserre. Koperatibak iraultza lutzatzen eta atzeratzen du. Kapitalismoaren astakeriak eta aldrebeskeriak zenbat eta nabarmenago orduan eta dnea, zirt-zart, iraultza errazago. Koperatibazaleek goxatu eta legundu besterik ez dituzte egiten astakeria eta aldrebeskeria hauek. Moteldu egiten dute langilearen borruka.

Dena den gizona bera aldatu eta berritu behar da. Hortako bizimodua erosotu behar zaio. Hortarako ekonomia sendotu behar da. Ez hori bakarrik noski, bai, ordea, hori ere.

Eta iraultzaren aurka ezer baldin bada kapitala iraultza da. Errian diru ondasunak murriztea eta soilteza. Erria xiroteza eta pobretzea.

Horregatik, gaitz guztiak ere, guretzat Euskal Errian begiak eta dirua jartzen dituzten lantegi eta diru-etxeak dira onenak. Horregatik zaigu pozgarri Gipuzkoako Industri Banketza indartzea. Horregatik zaigu gogozko koperatibak eta Langileen Kutxa Errikiok emengo ekonomia sendotu nahi izatea.

Ez gaitzela emen gera. Baina jakin dezagula hau gabe beste ez dela etorriko.

## Norainoko simetria komeni?

Gaurko gizartearen gizasemea eta emakumea ez dira batere simetrikoak. Hau gauza ageria da.

«A travail égal, salaire égal» entzun daiteke oraindik emakumeen aldeko manifestazioetan (=lan berberari sari berbera). Eta Katty Miller-gana jo beharrik gabe, Sartre berak orain dela zortzi urte gure gizartearen «ar-keria» (bar-ka zaidazu hitz itsusi hau, irakurle horrek) salatzen zuenean, egia den zerbait salatzen zuela aitortu behar genuke gizasemeok.

Nekez egiten bide dugu, ordea; setsu-zapalketa honetan gizon-zapalketa zapaltzaileen alderdian gaudenez gero, aipatu ere ez dugu nahi izaten arazo hau; eta behar baino gehiagotan trufatzen gara,

ituraz bederen, emakumeen setsu-protestazio zuzenaz.

Dagoen setsu-asimetria guztia, ordea, nekez ezar daiteke naturalaren lepora. Gure gizartearen badi-erudi, benetan, emakumeak, setsu-erudi gisa, gizasemeen menpeko egon direla mendeetan zehar, eta oraino ere menpetasun (edo menpekeria) horretan dautza. Gobernuak, elizak, parlamentuak, eta industri-buruzagitzak begiratu besterik ez dago.

Londresen ikusi berria dut dena «porno» horietako bat (gero eta ugariago dira, bidenabar esan dezadan, «sex-shop» eta halakoak, eta Euskal Herrira azaltzen hasiak dira); eta gauza nabarmena da dena bitxi horietan setsu-gaia, setsu-gauzakia edo objektua, ia osoki emakumea bera dela; eta oso gutxitan gizasemea.

Gauza ageria da hau aldizkari grafikoetan, esate baterako: fototerako biluztutzen dena emakumea da, ez gizona. «Strip-tease» egiten dutenak emakumeak dira; eta «trottoir» egiten dutenak, emakume ere bai.

Hendaian bertan gauero eta bi aretotan (eta Hegoaldeko bezeroei esker!) ematen diren pelikula porno eta erdi-pornoetan, emakumea izaten da setsu-gai edo setsu-ikuskari gisa eskaintzen dena; baita sartzerakoan ikusleari kolorezko antipar bereziak ematen zaizkionean... Pelikula gordina zer den ongi dakigu: harroparik gabeko emakumeak erakusten dituen pelikula bat.

Gizonetzkoen kaseta porno bat aurkitu berriko, emakumeen hogeitaurtik ohi dira. Propozizio bera eman du Kopenhagean.

Asimetria hori, beraz, gauza ageria da. Setsu-opari gisa emakumeak eskaintzen du bere burua, ahalik eta azkenik eta kilikagarrienik. Gizonetzkoak, berriz, ahal duelarik, setsu-opari horretaz baliatzen da.

Lein batez, beraz, emakumeak gizasemei buruz eta langileak kapitalistari buruz jarrera bera dute: biek eskaintzen diote «erosle»-ari beren burua. Eztaietako sotrake zaharrak eta pagamenduak (legiazkoak eta alegiazkoak) ez dira, ene ustez, inolaz ere funtsik gabeko sinbolo xoil. Sozialismoa eta emakumearen liberazioa, horretaz, mugimendu bizkiak dira sustaia; eta bi arazo larri hauek paretuan ikusten ez dituztenek, beren eskuindarkeria uzten dute nabarmen. Hau guztia gauza garbia iruditzen zait.

Gertakari xume (eta ez hain xume) horiek ez gaituzte ordea oso harritzen, are gutiago asaldaten eta mugiarazten. Irudizko itxorio farragarrietan, esate baterako, gizaseme zahar borobil nazkante bat, emakume polit lirain xarmant bati hurbiltzen zaiola ikusten ohituta gaude. «Normal» iruditzen zaigu, hitz batez, opari ederraren ezagugarriak emakumearengan aurkitzea;

duko digutelakoan, hemen jartzen ditut frantses politikoa den Maurice Schumann-ek leialtasuna dela-ta esan berri dituen hitz gogoangarriak.

«Egia da kondaira-gizon andi baten joatea ezin gera daitekeela ondoriorik gabe. General de Gaulle ez den batek defenditzen duen politikak berak ez dezake zabalatasun bera ez entzute bera izan. Halare, haren lehiaketan aritzeko asmorik gabe ere, eduki genezake berekeriko leialak izateko gogoia. Agertua dut lehendik leialtasunari buruzko nere iritziak. Leialtasuna ez da esatea «zer egingo luke General de Gaulle-k nere tokian bago?». Horrelako galderari erantzuterik ez dago; jenoaren ezagugarria antzeman-eziña izatea baita. Leialtasuna ere ez da esatea: «Orria aldatu egin da», bada era hortan norahi ager liteke leial. Nik aski dut nere buruari ximpleki galdezea: «General de Gaulle berriz bator nola zurituko nuke haren aurrean eta haren zirikusiagatik halako asmoa, halako jokabidea?». Nik itz ematen dut galde hauxe egiten eta egingo didala nere buruari goiz eta illuntze bakoitzean Kanpoko Arazoetako ministroa izateko ohorea eduki dezadan bitartean.

I. BUJANDA

## Egun Egunkoa

EUSKALDUNTASUNA ERASKIN OTE?

Hona non nik ezagutzen ditudan euskaldun intelektual batzuk: bata kontable da, bestea takimekanografa. Bata harakin, bestea okin. Batak arratseko zazpi eta erditan ekiten dio bere gramatika-aztertzeari, besteak zortziretan poemak izkribatzen ari. Batak gauzez euskaratzen ditu ikastolatarako txutak, besteak goiz-goizetik, lantegira joan baino lehenagoxe euskal kondaira ikasten du. Batak etx ile iharduten du, larunbat-igaietan euskerazko eskolak ematen, besteak oraintsu Amerikara asmoa zuen, nekazaritza-irritzi-jatorra izanik ar-toki ediren ezinik...

Marketing jakotik hartutako hizke ez esango nuke gure arazoa, funtsean, hortan datza: noiz izango gara «full time» euskaldunak, hau da, osorik euskaldunak eta Euskal Herriaren alde noiz ihardun behar dugun.

Daniel Ibargoiti

## LEIALTASUNAK

Esaera zaharretan bizi da erraren espiritua.

Leialtasun espiritua giza-bihotza-aren erdian sartuta dago. Gure euskaldun bihotzetan ere.

«Lehen-go lepotik burua». «Lehen-go, betiko, itzeko gizona izan». «Lehenagoko usteei eutsi». «Larrutua-gatik ez aldatu». «Eguzkiak nora, zapiak hara ez ibilli».

Gure arteko esaera zaharrok leialtasuna goraitzen dute, arbasoekikoa eta ondokoekikoa. Joan-dakoekin eta etortzekoekin leialak izanik gara bat. Leialtasunean datza iraupena.

Zeinek ez du nahi aurrekoekin, seme-alabekin eta seme-alaben seme-alabekin, federekin (nork bere federekin), politika maisuekin leiala izan?

Baia hori ez baita hain erraza. Maiz asko toki batetik dabil gure leialtasuna eta bestetik bizitza, konturatu gabe ezik. Lehengoak izan nahi dugu, eta ez gara lehengoak. Urteak, laioak, pozak, zorritarrak paseak dira denborazubiren petik. Gertatu dira gogorrak. Nahasmenduetan ibilli gara. Eta dirutu. Eta pobretu. Familia dugu, ez genduenok. Familia galdu dugu, genduenok. Lagunek alde egin dute. Talde berriak onuztu zaizkigu. Lehengoak izan nahi eta izan ezin.

Gainera ederki ikasi dugu Paraisuko pakea ez dela mundu honetako gauza. Amestu genduen zorionezko ugarterik ez dagoela. Gurean, beste edozein eskualdetan bezala, ideal desberdiñeko leialtasunak daude, eta ez dago hortaz min artzerik. Elkarren artean amorratuta gaude, eta ez da hauxe berrogei urte hontako albisteak, aspaldigotik aurkitzen baizara borroka giro bizian, Leialtasun borrokan.

Leialtasun bat bakarra ez dagoela, leialtasun asko baizik. Honentzat dogma edo ia dena harentzat ke pixka bat besterik ez da. Batek maiteena duena bestearentzat gorrotagarria. Aukeran ditugu filosofiak, mundu-ikuskerak, dotriñak, ezinbestez noski kontrakoak. Leialtasun etsaituekiko leialak gara gu.

Hainbeste iritzi, ustekizun eta aburuen artean agian ahaztuzten ari zaigu gure buruarekiko leialtasuna, neronek nere buruari zor didana, nere nortasunak eskatzen duena, gizon eta emakume osoa izateko orain bertan, inguru eta giro honetan, eldutasun batean gainontze-koekiko arreman zintzoetan, filosofia guztien gainetik, ezinikusi guztien gainetik, dotriñak guztien gainetik. Leialtasuna gure denborarekin. Gure denborako leialtasunak zientziarekiko leialtasuna esan nahi du, lehen gutxiago sentitzen zena. Teknika aron bizi gara. Aurreakuntza garaia da gurea. Azkera aldia. Askatasun ordua. Horiek leialak ez bagara, betiko galdu gara. Ez gaitzke joan historia uholdearen aurka. Itoko gaitu baztertu nahi badugu.

Gure aurrekoek, gure maisuek (eta bakoitzak aukeratu baitu zenbait aurreko eta zenbait maisu, beste zenbait zokoratuz) irakasten zabal bat, joera andi bat, inspirazio bezalako zerbait utzi ziguten. Ez digute ordea esan alde eta aldi bakoitzean, leku eta minutu bakoitzean nola joka, zer egin. Ez digute hori zehatz agertu ezinezkoa zutelako. Bere ez zekiten orduan gerora gauzak nolakoak izango zirenen. Oraingo prolemaik ez zegoen eta, ezin bada aurrez aldetik igerriz soluziorik, ez biderik, ez ildorik.

Guzti hau gure esku eta gure bizkar dago. Hortik aurrera gurea da erantzukizuna, gurea da asmatzea edo anka sartzea. Belaunaldi orok badu bere topaketa geroarekin eta gure belaunaldi honen topaketa ez da asmatzen xamurra, arrunt makurra baino. Behar bada iturburua argiro dakusaguz eta nora-beharra bistan dadukagu. Demagun bat garelako hortan (bat ez garelako dakigun arren) eta halare buruasteak buruaste izango ditugu jokabidea erabakitzeo. Nondik joan hartaraino? Zer medio erabili? Edota ba ote dugu oraingoz modurik? Ala moduak nahi aintzat ditugu hortxe, mahai gainean, nahien duguna ar dezagun, eta nork adieraziko bataren alderdi onak, bestearen kalteak, guztien arriskuak?

Ez alegia. Leialtasuna ez da gauza erraza.

Leialtasuna ez da roboten gisa bestek esana egitea. Ez gara makinak.

Leialtasuna ez da bestek erakutsia bildurrez zertutzea. Ez gara esklaboak.

Leialtasuna ez da zakurra bezala nagusien atzetik ibiltzea. Ez gara abereak.

Leialtasuna ez da maisuek azaldutako lezioa itzez-itzez kantatzea. Ez gara umeak.

Leialtasunak buru-argitasuna, ikusmen zorrotza, ausartasuna eskatzen ditu. Leialtasuna gauza zaila da, nahaspillatua, korapillotsua. Aitor dezagun bederen inork ez digula dohai berezirik hontan eman besteak baino trebeagoak izateko edo besteak baino gehiago jakiteko, eta beti ere kontuz ibilli behar dela, nahiera onez eta ermetasun larri.

Zuhurtasunean jokatzeko lagun-

eta gizonarengan, berriz, opari-tasun maila hori ez topatzea.

Zoologian, ordea, jakina denez, alderantziz gertatzen da: lehoi-arrak ditu apaingarriak, ez lehoi-emeak; indi-oilar-arrak ditu lumarik ederrenak, ez emeak; eta abar, eta abar. Emakumeen edertasun berezkoa eta «bello»-seko» delakoaren ipuinak, kulturalki dira: geroen kulturaren ezagugarri huts.

Gizona, beraz, erosle gisa agertzen da izkirimirietan: itsusi, baina patrika ongi lodiaz, moltsa-gizona bezalaxe; eta emakumea, aldiz, salgarri, kutixigarri, merkantzia huts (azkeneko berebil-mota bezalaxe); eder. Eder eta zuzenean setsu-kilikagarri. Emakumea, entzun ohi da oraindik, zozaogo, ederrago, eta hobe! Langile «onari» buruz esan ohi zen bezalatsu...

Eskema horrek ez gaitu aski harritzen; ezta p...ren tratu gisa argitsuak ere: bere gorputzari prezio zehatz bat jartzen dionean.

Ohar araz ditzagun orain beste alderdi batzuk.

Kristau moralak ezin hautsizko ezkontza onhar-arazi zuenean, emakume ezkontzaren multzoan ez bestetan zuzenean zuten emakumearen setsu-opari maila hori. Eta, arrazoin ekonomiko nabarmenez gain ere, ezkontzu ondoren beren liraintasunaz arduratzen ausartzen ere ez ziren egiten gure amonen amonak. Emakume prestua emakume itsusia zen. Setsu-kilikagarri eta atsegin-objeto agertzea, ezkontzu arteko bolarari zegokion; ez inolaz ere gerokoari. Eta hor ditugu Mendiburu eta gainerakoak lekuo. Emakume «arinek» ez bestek joka zezaketen bestela. Utikan! Bertutea eta itsustasuna bat. Eta Pio Barojak ongi ulertu zuen.

Gaur, berriz, ezkontza klasikoaren krisia denen begien aurrean agertze: delarik, emakumea ezkontzu ondoren ere atzeratzen dio, askotan bederen, bere setsu-opari mailari: gaurko gizartearen ederrago bihurtu dira emakume ezkontzuak. Jinasia gero eta hedatuago dago etxekoandreen artean. Eta ez inolaz ere ekonomi eta osasun arrazoin hutsengatik. Nik behintzat nekez irentsioko dut hori.

Halaz ere, emakumeak bere setsu-gai eta gauza-tasun maila horri atxiki dio gizarte berrian ere; eta gizasemeak, era berean, bere erosle mailari. Jazkeraz-eta mintzo garelarik «setsunen trukea» aipatzen dugu maiz; baina, gizonetzkoengan setsu-objektotasun horren lehenengo azarnak agertzen hasiak badira ere (ile-txintxoak gerriraino ikusi ditut berriki mutil gazteenen, baita takoinak, belarri-zintzilikarioak, lepokoak, eta abar), bere burua setsu-gauzatatz eskaintzen duena emakumea da oraindik. Emakume «des-gauzatu» ala, ordea, ezin-bestean gizona «gauzatu» egingo da. Hasia da egiten: gaurko gizartearen ederrago dira gizon helduak, lehengo gizartearen baino; eta gisa da. Euskaldun gizasemeen sabel borobilak eta itsustasunak, horretara, gure herri-primitibismo famatu horren seinale iruditzen zaizkit.

Asimetriatik simetriarantz goaz beraz, poliki-poliki; eta badirud gaur gaurkoz (eta oraino ere lu zuz, nik uste) berdinketa hori txalotu beharra dela. Emakumea ez da oraindik irten gynezeotik eta haremetik.

Noiz arte txalotu beharko, ordea? Roger Caillois-ek oharketa ezin zorrotzagoak egin ditu berriki asimetriaz eta simetriaz (ikus «Dieu gène», 76, 1971); eta, biologiare mailan adibidez, ohar ezin harrigarriagoak aipatuak ditu Laboritek Simetria osoan, heriotza nagusi eta Ezdeusa bera ere ondorio! Horra simetriaz eta oreka guztizkoa dakiguna.


Gizartearen, beraz, Zoologian bertan sumatzen denez, on dirud hein batez emea eta arra desberdinak izateak.

Non da, ordea, Biologiari dago kion desberdintasuna? Non hasten da Kulturari dagokiona? Non giza te-iraultza batek konpon eta xuxei dezakeena? Non marratu behar da setsu-zapalketaren mugua?

Zail da erantzuten.

Baina emakumeek ere badute arazo sakon honetaz beren iritziak eta beren setsu-interesak osoki azaltzeko eta errespetatzen eskubidea.

LARRESORO



**5.500.000** zaizkigu. Egunkariak ahaztu egin dute, Managuako oihartzunak baretuz joan nonbait, managuarren egoera larria, batpatean erabat konpondua bailitza. Izan ere, notizia bezala aukeran gertatu zen Managuako lurrikara; baina notiziak —notizia soil bezala— hiruzpalau egunetan gaitzen du bere indarra, bere eragina. Jendea, irakurlea, gauza berrien egarri da, eta ez zaio bestalde, lagun urkoaren zorigaitza atsegin, ez bait da gustora, eroso, sentitzen. Gainera, ez sakonduz gero, egun gutitarako ematen du edozein gertaerak, eta gure egunkariaren aipatu ez arren, Managuako lurrikarak zenbait ondorio larri baino zenbait gehiago erakus ahal izan ditu.

Honela jakin izan dugu, Nicaragua bizpahiru jauntxoaren estadia dela, Somoza deritzan familia batena hain zuzen, azken 37 urte honetan yankeen babespean Nicaraguako jaun eta jabe bihurtu direnak.

Izan ere, 1934 urtean nikaraguar harmadako militar bat baino ez zen Anastasio Somoza, Herriaren buruzagi aberzale zen Sandino hilarazi zuen U.S.A.ko enbajadorearen laguntzarekin. Gaur egun Nicaragua ez da yankeen kolonia bat baino, politika eta ekonomiaz haren menpean da goelarik.

Anastasio Somoza semeak berriz, Nicaraguako agintariak eta nazio harmadako nagusiak izateaz gainera, hamairu mila miloi pezetaren jabe dira. Lurrak hirutarik bat berenak dira, bai eta kafe, azukre, ehun-lantegi, zur, zementu eta beste hainbat lantegien ugazabak ere. Horrez gainera, Nicaraguako abioi nahiz itsasontzi zerbitzuak ere Somozatarrenak dira, halaber telebista, hiru irrati eta egunkari bat. Eta hau guzti hau guti balitz, Nicaraguan biltzen den urrea ere % 15 Somoza anaia da, ezin esan ba indarrez hartutako agintaritzan eta "gringoen" babesa aprobetxatu ez dutenik.


Eta aberastasun izugarri hau herri guztiz pobre batetan, erdi inguruak ez irakurtzen eta ez idazten ez daki herri batetan, non jaiotzen diren haurrak —bitarix bat— bost urte kunplitu aurretik hiltzen diren, non etxe gehienetan ez da ez argi-indarrik, ez urik, ez eta komunik.

Dena den, ulrikara dela eta, laguntza bildu nahi izan da mundu guztian barrena, managuarren onetan zenbait egin nahirik. Espainian 31.000.000,— pta. bildu omen da, eta Gipuzkoan bakarrik 5.500.000,— pta. Eman duen jendeak borondate onenaz ematen zuen, noski, eta borondate onak mundu honetan preziorik izan ez arren, noizbait ez nonbait izan dezake ordain merezia.

Hala ere, nik neuk ez dut inoiz konfiantza handirik izan halakoetan biltzen diren diruak norberak uste duen toki bertara helduko direnaz. Eta are gutiago oraingoan, goraxeago aipatuko lekuko. Badirudi gipuzkoarrok bost miloi eta erdi eskaini diogula Nicaraguako administrazioari, Somozatarrei alegia. Behar bada gure patrikak ez dio igerriko eta seguririk, Somoza anaiek ez digute eskerririk ematen. Edonori laguntzea ondo dago, baina "primo" egitea ez dute uste inongo mandamendutan aipatzen denik.

**RAMOX AZKARATE**

Tolosako ihauteriak direla eta, Tolosa bertako "Txinparta" Elkarteak omenaldi bat eskaini nahi izan dio Ramox Azkarate herririkide ospetsu zenari. Omenaldi hau



Martxoaren 6an. —ihaute asteartez— eratzeko da, eta beste zenbait saioren artean Ramox zenaren irudi bat ageriaraziko da, zapataritzan ihardun ohi zuen tallartxoan bertan.

Dagoeneko esana dugunez, Ramox Azkarate Tolosan jaio zen 1847ko. martxoaren 28an. Erramu igandean jaio ere, eta hortik zetorkion nonbait izena, Ramos alegia, edo, hobeto esan, Ramox, guztiok deitzen ziotenez. Hil ere Tolosan egin zen, 1904ko. martxoaren 26an, hau da, 57 urte kunplitu baino bi egun lehenago.

Gaztetan liberala izan arren, karlista bilakatu zitzaigun gero, eta ez nolanaikoa gainera, guti bezalako purrukatua baizik. Aldaketa horren berri berorrek ematen digu bere pertsoetan:

Ni nere Erregien etsai nintzian, nebillen Eliza ta Furoen kaltian.

Bańan ikusirikan zenbait istoriya, ikasi nuben zenbait maitatzen egiya; maitatzen Furoekin euskaldun erriya, maitatzen euskera ta zure familiya.

1885 Urterako bi komeria azalduak zituen jadanik Tolosako Plaza Zaharrean. Lehena Ijituen Kontratuba eta Ezkontza nonbait, eta bigarrena Beotibar'ko Jazarra. Bata zein bestea Tolosako ihauterietan aurkezteko propio eginak.

1893 urtean, 46 urte zituelarik, "El Cantabro" aldizkari karlistarra sortu zen. Aldizkari horren euskarazko atala Ramoxen eskutan zegoen gehienbat. "El Fuerista" izeneko aldizkaria era bazen, Donostiako integristek argitaratu emana, eta elkarren arteko istilu eta iskanbilak egundainokoak izaten omen ziren, gure Ramox erraz isiltzeko mutila ez zelarik, eta ziritsu ikaragarria gainera.

Hitz lauz zein bertsoz amaika lan idatzi zuen Ramoxek "El Cantabro" aldizkaria argitaratu eman zen bost urteren buruan (1893-97). Bertsoak nahi haina eta ipuinen bat edo beste ere bai noizik behin. Modu batez zein bestez, eta sarri askotan izenordez baliatuz ere, politikari buruzko kritikak eta zirikadak dira Ramoxek batez ere idatzi zituenak, garaia zerion giroaren lekuko paregabe agertuz.

Horrez gainera, baditu bestelako lanak ere, ipuinak, ziriak, erlijio gaiak eta beste, baina, behar bada, guztien artean Galtzaundi izenekoak dugu ezagunena, eta ez gure tolosarraren idazlanen artean soilik, bai eta euskal kantarik herrikoienetako bat ere, Gipuzkoan barrena behinik behin.

**GALTZAUNDI**

Aspaldiko ohitura denez gure Euskal Herri honetan, eta gurasoei entzuna diegunez behintzat —zeren guk geuk ez dugu halakorik ezagutu—, ihaute egunetan gazteak koko-moko jantzirik, taldeka ibili ohi ziren kalez kale, egunari zegozkion kantak oroitaziz. Talde hoitarako burutu zuen hain zuzen Ramoxek bere Galtzaundi bertso bilduma, bai eta 1880etik. 1890era. bitarteko ihaute egunen batetan aurkeztu ere. Ramoxek, Galtzaundi izenekoak gainera, beste bertso asko moldatu zuen ihaute etarako, baina, antza, Galtzaundik bakarrik irau du kementsu gaur arte, ia ehun urteren buruan tolosarrek ez bait dute ihauterik iragan Galtzaundiren bertsoak kantatu gabe.

Bi bertso sorta dira Galtzaundirenak. Lehenari, sei ahapalditakoari, Tolosa-ko Galtzaundik bere buruari jarriak deritza eta Galtzaundiren testamentuaz ari da:

Neri deritzat Galtzaundi, apellidua det Gofi, Aldasoro izen goitiya deitzen dirate neroni; iltzerikan ez nuben lenago pentsatzen, bańan oraigotikan ez naiz eskapatzen. Testamentua egitera nua ni lenbailen, nere parientiak lasatu ditezen.

Entierrua nai det egitia neri bigarren klasian, lau zapatarik eramati gańera berriz aidian; jota nabarra juaz Enpero kalian, sobrekamak balkoitan naramatenian Arramale zubiyan aizken aizkenian zagi bat ardo jarri kajaren gańian.

Bigarrena, aldiz, Galtzaundi'ren piztuera izenekoak da, hamasei ahapalditakoak. Galtzaundi hila zela eta, horra non agertzen zaigun. Senar-emazteen arteko elkarriketak osatzen du batipat bigarren sorta hau. Diruz beterik datorrelakoan eta, emazteak maitekiro hartzen du. Baina, gero, Galtzaundiren beraren ametsa baino ez zela eta, hara emaztearen haserre eta errierta. Harako piztuera ez dio nonbait mesederik ekarri, eta honela kantatzen du Galtzaundik:

Andria nausi ikusitza nere biyotzak damu du, nere burua nik ilko nuke baldin balorerik banu; bi aldiz ill ezkeroz gaitza da piztutzen, argatik eriyotzak nau ni txit bildurtzen, ezpanau emaztiak agudo artutzen "abajo las mujeres" asiko naiz deitzen.

**EUSKERAZALEAK**

Jesus Oleaga jaunak "Euskerazaleak" deritzan elkarteko lehendakari izaten jarraituko omen du. Honela erabaki da behintzat, elkarte horrek Bilbaon ospatu duen azken bilzarrean.

"Euskerazaleak" orain arte jarraitu dion hildo berberari jarraituko omen dio, euskarari atxikirik batipat, ez bait da alferrik euskara euskaldunen altzorrik bereziarena, eta are bereziago, behar bada, Bilbaon. "Euskerazaleak" euskara irakaskintzan sailatuko omen da gehienbat, "Kili-kili" metodoz baliatuz, idaz-lehiaketa eta beste antolatuz eta liburu gehiago argitaratu eman asmoz.

Orain arte bost dira gutienez "Euskerazaleak" argitaratu eman dituen liburuxkak: Aurtzoa, Ikasteko, Irakurgai erreze polita, Giza-soñiak eta Nora zoaz?, bata zein bestea irakaskintzarako propio hautatuak.

Bestalde, badirudi azkenik, elkarte honek izena "aldatzea" erabaki duela. Orain ez dela asko EUSKERAZALEAK zeritzan, orain berriz, hasiak gara non-nahi EUSKERAZALEAK irakurtzen, tira bazen gara!

Dagoeneko esan beharrik ez dagoen arren, Azkue Euskerariaren Yakintza (1935) bildumaren hitzaurrean arazo honetaz mintzatzen zaigu zuzen zuzen, eta argi asko adiarazten digu Euskal dela egiatzko sustrai eta ez Enzkal, ez eta Eskual. Eta gehiago ere esaten digu: "Egungo euskalari batek 's' ori 'z' bihurtu digu".

"Euskerazaleak" hogeita hamazortzi urte behar izan ditu Azkueri arrazoi emateko Arana Goiren kaltetan. Halaber, seguru gaude, beste hogeita hamazortzi urteren buruan, XXI mende berriko jaiak ospatzeko edo, Bilbaoko elkarte honek halako bihozkada "progre" batez beste aldatzeko bat ere eginen digula, halakoren batetan EUSKERAZALEAK bilakatuz, alegia.

Beti esan ohi dugunez, hobe da, bai, berandu sekula baino. Gainera, egia da ere, ezin dezakegula denok ario guztietan abiada berdina eraman. Jainkoak ere —Jainko izanik— arrazoren bategatik sortarazi zituen barea eta erbia. Denetarik egon behar honi "ekologia" deritzate jakintsuek, eta txarrenean ere, ezin uka euskaldunok nahiko horniturik gaudela zientzia horretaz.

**HIL-AGIRIAK**

Deriotar batek azterketa polita egin du, xelebrea behintzat. Ez zaio beretik bururatu 1972 urtearen buruan Bilbaoko egunkari batetan azaldu drien euskarazko eskelka kontatzea baino, bizkaieraz edo euskara batuaz agertu diren arauera banatuz.

Berorrek dioenez, guztira 60 izan omen dira urtean zehar agertu diren euskarazko hil-agiriak, zeinetatik 56 (%93,5) bizkaieraz izan dira eta 4 (%6,5) euskara batuaz. Azterketa honekin nahi izan omen du erakutsi zein "euskara" duen herriak maitateko.

Iritziak iritzi, guk geuk ez dugu uste, ordea, %6,5 hori horren guti denik. Beste zenbait arrazoren artean egunkari hori bizkaitarra delako eta, zoritxarrez, bizkaiera nahi eta komeni baino urrutiago dagoelako giputz-lapurdiko enborretik. Bestetatik, Bizkaian, Gipuzkoan eta Zuberoan ezalaxe —guk uste—, nagusiak gazteak baino errazago hiltzen direlako, bai eta hiletazaleak ere. Eta horrez gainera, azkenik, Euskara Batuak (Baturakoak?) hiruzpalau urte baino ez dituelako, eta denok ez dutelako Bilbaoko Euskerazaleen "abiada".

Dena den, txarrenean ere, azterketa hori egin duen gure mutiko bizkorari beste zeregintxo bat ere eskatuko genioke, hau da, kontatu ditzala 1973 urtearen buruan egunkari horretan agertuko diren hil-agiri guztiak, esan ditzala gero zenbat agertzen diren euskaraz eta zenbat gaztelaniaz, herriak zein hizkuntza maitateko duen jakin dezagun behingoan, eta ondorioen arauera, gure ahalegin-txoetan nola hala jarrai dezagun edo bestela, euskal aldizkari, argitaldaria eta irratietako ateak itxi, eta herri horri amore emanez denok baketan bizi gaitzen.

**EUSKAL IZENAK**

Euskal izenei buruz zenbait le- rro agertu berri da GOIZ ARGI hamabosterokoan "Irahe" delako idazleak izenpeturik. Honela dio hitzez hitz: "Eggn euskaldun asko, eta euskaldun ez diranak euzkotarrak (?) ere bai, euskal izenekin zaletu dira. Askotxo dira neroni ere izen oien zerrendak eskatu didatenak. Gure aintzinateko kondairan ez ote daukagu euskal izan jatorren batzuk? ANTISO, ARITZA, ASSO- NA, BELA, BELANDATXO, EYLO, GAILA, GARZEA, GALINDO, GILESINDA, JAKUE, ONEKA, LILIOLO, MUNIO, MUNIA, MOMI, MONIO, SEMEN e. a. Auetatik, danok ez badira ere, batzuk bai beintzat euskal izenak dira. Egoki izango litzake Euskal Izendegian sartzea".

"Irahe"k e zbadaki ere —jakin behar luke—, edozein gurasok daki ANTISO, ARITZA, BELA, GALINDO, GILESINDA, JAKUE, ONEKA, MUNIO/A eta SEMEN behintzat Euskal Izendegian dagoeneko sarturik daudela, ez bait du Jose Mari Satrustegik zeregin hori alferrik hartu, ez eta "La Vasconia" banka-etxeak Durangoko Azokarako 50.000 ale argitaratu eman ere.

Itxura denez, "Irahe" jauna ez da oraindik enteratu, 50.001.garren alea fatla nonbait!

**DENETARIK**

Eibar, Elgoibar eta Deba bailadak beste zenbait herritan behintzat, kezka eta ardura handiz jakin da pezetaren nazioarteko kotizazio berria. Dagoeneko jakina denez, diru-balioaren azken gorabeheretan pezetak urrearen balioaren berberaren arauera jarraitzen du, dolararekiko %10 igoz, hau da, dolar bat erosteko lehen baino %10 peseta gutiago behar dela alegia.

Neurri honek mesedegarri dirudi hasiera batetan behinik behin, eta are gehiago gure egunkarietan barrena hizki handiz irakurri eta gero, egundainoko berria balitz bezala. Eta hala lizateke apika, norbaiti U.S.A.n zehar turismorik egitea otuko balitz. Baina hauzia besterik da, zeren alderantziz, han saltzen diren hemengo produktuek batpatean %10 gehiago balio dute, kompetentziako saletrosketa sistema batetan sort daitezkeen ondorio guztiek.

Kontutan izan, bestalde, Ipar nahiz Hego Ameriketara eta beste hainbat estadutan ere dolarra bera dela kotizazio neurri, eta hain zuzen, Gipuzkoan tresna-makinagintzan diharduten lantegiek %40 esportatu egiten dutela. Eta ez makinagintzan bakarrik, bai eta tresna soil gintzan ere (giltzagintza, griferia etab.), eta halaber bizikleta, eskopeta eta harmagintza ere.

● Bilbaoko "Akelarre" taldeak haur antzerki lanak aurkezteari ekin dio. Dagoeneko Anacleto busca su esqueleto delako antzerki lana gerturik du eta Bizkaiko zenbait herritan (Getxo, Algorta etab.) aurkez ahal izan du. Horrez gainera, Barakaldo, Sestao, Portugalet eta Santurtzen ere laster agertzeko dira.

Orain arte esan dugun honek ez du, ez, bestelako garrantzirik, baina harrigarria zera da, oker ez bagaude hilaren 18an. "Akelarre" taldeak Las Arenas-ko Gobela Ikastolan aurkeztu zuela harako "Anacleto..." hezur-gabeako hura. Nonbait, Bilbao inguruko erdal giroa ez da aski haurrak hezitzeko, eta orain berriz erdal antzerkia ikastoletan barrena girotan sartzeko edo.

Gaizki esanak ez barkatu, zuzendu baizik. Gobela Ikastola horrek du hitza.

● Hilaren 18an. "Intxiru" taldeak ARALAE deritzan pastoral tankerako antzerkia agertu zuen Nafarroako Sunbilla. Dakigunez, antzerki lan hau Teodosio Goñi buruzagia eta Aralako Mikel Sanduaren kondairan oinarriturik egina da.

Antzerkiak gainera, Agirre eta Mattin bertsolariak osatu zuten sunbillarrek eratuak jaldi hau. Eta bertako parrokiaren alde eratu ere, San Joan Parrokiako eraberri- tzeak sortu dituen gastuak ordaintzeko alegia.

Ego Amerika eta ipar Amerika:

MORROI IZATEA GOGORRA DA

Leku guzietara joan eta iritxi den Kissinger joango ote da Cuba aldera Fidel Castroekin mintzatzera? Galdera au, duela urte batzuk iñozo baten galdera besterik ez zen, gaur egun oso normaltzat jotzen dugu. Ez gara ere ezer asko arritu Ipar Amerikak eta Cubak itun bat izenpetu dutela jakitean. Abioien bide-aldaketa edo pirateria dela medio egin da itun ori. Bi gizarteen muinari ikuitzen dion Ituna izan ez arren, bien arteko arremanak aldatzen ari direla adierazten du, ordea.

Aldaketa ori daitekeena dela adierazten duen beste alderdi bat ere bada. Ipar Amerikak ekonomia sailean behintzat arreman estuak ditu Rusia eta Txinarekin. Cuba berak ere eta batipat Rusiarekin arreman estuak ditu. Rusiarentzat Cuba karga bat da ekonomia arloan. Zergaitik beraz arremanetan ez asi? Rusiarekin eta Txinarekin arremanak baldin bada zergatik ez Cubarekin?

Ipar Amerikako Parlamentuan, demokraten buruzagiak gogor egin dio Nixon, lehengo posturan, Kennedy garaiko posturan, ezin daitekeela jarraitu adieraziaz. Parlamentuan jendea onela pentsatzen asten denean ez da beraz arriztekoa izango denbora gutxi barru bien artean arreman politikoak ezarita ikuste.

Eta gizon politikoen politikaz mintzatzen dutenean ez dute zeruan pentsatuaz edo ez dakit moralidadezko zer arrazoi politetz pentsatuaz itegiten, lurra eta ain zuzen ekonomiazko arazoek pentsaturik baizik. Eta Ipar Amerikako kapitalistek onetan ez dute bat ere eskrupulorik. Gaur egun, Cuba beren interesentzat leku egokia litzake.

Rusiak, berak ere, ez litzake arreman oriek txartzat joko. Lehen ere esan dut, Rusiarentzat Cuba karga bat da. Ipar Amerika eta Cuba arremanetan asiko balira zama ori, ain zuzen, arindurik arkituko litzake. Izan ere, Cubaren oztoporik andiean Ipar Amerikak ezarri dion blokeoa izan da. Blokeo orren aurka, ekonomiazko blokeoari buruz ari naiz, Rusiak Cubari irauin erazten lagundu dio. Baina laguntza orrek ezin dezake urte askotan irauin eta gaur egun Rusiak begi onez ikusiko litzuke Cuba eta Ipar Amerikaren artean ekonomia arremanak.

Azkenik, bada beste arrazoi bat ere esaten ari naizenaren alde, Cuba, Ego Amerikako askorentzat eredu bat izan da. Cubaren exenpluak eraginik, Ego Amerikan jende asko altxa da Ipar Amerikaren aurka. Kuba eredu bat da. Ipar Amerikaren eta Cubaren artean egoera baretuko balitz ez al litzake Ego Ameriketako egoera ere baretuko? Ein andi batetan eragingo luke, baina arreman oriek ez luteke Egoamerikaren etorkizuna erabakiko. Etorkizun orretan erabakitzeke Ipar Amerikak beste jokabide bat artu beharko luke. Baina Nixonek ba al du beste jokabide bat artzerik? Ba al du plan edo estrategia berririk eraturik?

Ni eztezean nago. Eta ori adierazteko Ego Amerikako buruzagi batzuen postura gogoan izan besterik ez dago. Urte onen otsailaren bereratzian Bolivian batzar bat egin zuten Amerikako estatu guzien ordezkariak. Batzar ori ekonomia arazoetarako bakarrik osaturikoa zen. Ego Amerikako estatu gehienak beren kezka garbi azaldu zituzten. Dolarraren krisia dela eta berriro ere, galeran lortzeko beldur ziren. Beren expozizioak gutxitzeko arriskuan arkitzen dirala ikusirik, zergak, inportazioak zergak, ez anditzeko eskatzen zien Nixon lehendakariari. Azkenik, Ipar Amerika eta beste arteko arremanak jatorragoak, zuzenagoak izatea eskatzen zuten.

Ego Amerikako estatuak Ipar Amerikaren morroitzat daukate beren burua. Morrontza ori geroz eta gogoragoa egiten zaien. Batzuek morrontza orren araudia aldatu nahi dute, besteek morrontza orri ihes egin nahi diote baina denak egoeraren aldakuntza eskatzen dute. Lehen ez zen onelakorik gertatzen. Gaur egun geroz eta gehiago, berriz.

Martxoan, Anuren babesean, Panamako lurraldeetan egingo den biltzarrean orrelako zerbait, berriro ere, gertatuko da. Biltzar ori ez da ekonomiazko arazoak aztertzeko osatua, politikazkoak ikusteko baizik. Ego Amerikako arazoak aztertuko dituzte. Billera orretara Fidel Castro joango ote den, bada zuzumurrua. Baina billera orren aintzindaitza Panamak izango du, batipat bere lurraldeetan egiten delako. Izan ere, orrelakotan, billera egiten den lekuko estatuak izaten du leku berezia. Panama ederki baliatuko da egoera orretaz.

Panamak bere ur kanala delaeta badu problemarik Ipar Amerikarekin. Zalantzarik ez dago ur kanal orretaz, gaur egun Ipar Amerika ederki baliatzen dela berea izango balitz bezala edo kolonia bat izango balu bezala. Panamak ez du egoera ori onartzen. Aspaldidanik ari da arau berriak eskatzen. Billera orretan lasai planteatu ahal izango du arazoa, entzule gehienak bere alde izango bai ditu. Ipar Amerika onetaz jabetu da eta auzia galduta duela ere ohartu da. Orregatik bidali du egun autan, bere kontsellersi bat panamatarrekin mintza eta billera ori baino lehen gauza konpondezan.

Panamako billera ori ez ezik bada Martxoan beste billera bat ere. ONUk Ego Amerikarek arazoetarako eraturik duen erakundearen billera izango da. CEPAL erakundearen billera, alegia. Erakunde onen buruzagia den Enrique Iglesiasen postura garbia da. Gizon onen ustez, Ipar Amerika eta Ego Amerikaren arremanak sakon sakonetik aldatu beharrean arkitzen dira. Ego Amerikak morrontzapetik irten beharra dauka. Billera orretan, berriro ere, Ipar Amerikak gai tzeztua izango da.

Ipar Amerikaren jokabidea auzitan arkitzen da. Kennedyk eta Jhonsonek plan berri batzuk eratu zituzten. Plan ariek pikutara joan ziren. Nixonek ordea ez du beste plan berririk adierazi. Bien bitartean Ego Amerika bere babesetik aldegiten asi da. Nixonek jokabidez aldatu beharra dauka. Bestela...

J. ELUSTONDO

INDARRAREN ESKUBIDEAK

"Ze eskubide du, bada, USAk bere Komertzioko Balantzaren soberagoa, gauza guzien gaintetik, erdietsi nahi izateko?" R. Aron izan da, galdera hau garrakzi, "Le Figaro"-ko lehen orrialdean, egin duena. "Indarraren eskubidea bakarrik, noski", erantzuten du Aron-ek berak. Ez da guti harritu zenbait jende aipatu artikulua garratzasunaz. Aron ospetsua ez bait da, inondik ere, anti-USA sutsu horietakoa. Haserreak haserre, galdera ezin egokiago egin dago. Alde batetik, USAko ekonomiaren estratejiaren ardatza zuzen zuzen seinatzen duelako. Beste aldetik, estratejia horren indarrezko eta arrazoirik gabeko oinarriak salatzen dituelako.

—oO—

Hiru erabaki hartu ditu Nixonek. Ontzako urreak 42'22 dolar balio du; lehen 38 dolar zen. Dolarra, beraz, mesbaliatua izan da berriro. Hau da erabakietatik bat. Mundu guziaz badaki, ze "ondorio eta fruitu" atera nahi izan ohi den, Gobernuren batek bere dirua mesbaliatzea erabakitzen duenean. Atzerriko ondasunak garestitu, eta barrngo ondasunak kanpokoentzat merkatu, egiten ditu diru-mesbaliatzeak. Horrela, ondorio bidezkoa zera litzake: atzerriko ondasun gehiago saltzea, alde batetik, eta atzerriko merkatuetan gutiago erostea, bestetik.

Hain zuzen, hori da Nixonek lortu nahi duen helburuetatik bat. Alegia, Komertzioko Balantzak deficit ikaragarria eman du igaro urtean (6,44 mila milioi dolar), eta deficit hori lehen —bait— lehen kendu, eta superavit lortzeko hartu du, hartu duen erabaki berritza.

Hona hemen bigarren erabakia: USAko industria begiratzeko eta zaintzeko, edozein traba eta eragozpide ezartzeko prest dago Nixon, atzerriko ondasunen aurka. Japondik, Kanadatik, Alemaniatik datozen merkantzien gainera zerga astunagoak ezarri, eta beharrezko balitz, neurri batez gora atzerriko merkantziak sartzen ere ez utzi. "Lotsagabekeria eta faltsukeria galanta", deitzen dio Aron-ek Nixonen joku honi. Baina Lehendakariak badu "arrazoirik" haserrealdi eta amorruek baretzeko, baita bere estratejiaren "zuzenaz"

deihadar egiteko ere. "Neurri berritza horiek hartzerak makurtu behar banu, honengatik bakarrik izango litzake, hots, gure langileak eta gure industrietako ugazabak bidegabekeria tratatuak direlako, gaurko munduko salerosketatratuetan. Baina gure bideak bortxa-bideak ez direnez gero, prest gaude gu ere, gure aldetik amor ematera eta zenbait aduanazerga beharrezko. Hau guziaz, datorren irailean hasiko gara, gure salerosketakideekin tratatzen, G.A.T.T. erakundearen biltzarretan".

Hirugarren erabakiarekin osatua eta biribildua ateratzen da Nixonen estratejia. Hona hemen erabakia: "1974 urtea bukatu baino lehen, diru kapitalei askatasun osoa bihurtuko diegu berriro, U.S.A.tik atzerriko edozein erresumata joan ditezten". Badirudi erabaki honekin, Nixonek berehalako mesedea egin nahi diola munduari. Europara eta Japonera kapitalak librok eramatean utziko dituela agintzen bait du. Baina zer dela-ta doaz kapitalak Europara eta Japonera, Ipar Ameriketako lurralde aberatsak utzirik? Hemen datza gakoa.

USAko industria-adar anitz, munduko merkatuko jokitik kanpora gelditu da. Japon eta Alemaniak kostu hobetan ematen dute munduko merkatuak gaurregun eskatzen duen ondasun anitz. Irabazpidea, beraz, zabalagoa da USAz landa, industria mota askorentzat. Etekin ngariagoa bil dezake kapitalak USAz landa, esaterako Kanadan, Japonen, Merkatu Komunean.

Hona, bada, sintesian, Nixonen estratejia garbia, berritza eta kiskalgaria: a) USAko industria-adar anitz gairatzen dago. Ezin du Japonekin nola Alemaniakin borroka egin. Hortatik sortu da deficit ikaragarria. Kapitalaren eta USAko sindikatoen interesak begi-



R. ARON

ratzeko, eta langabezia urrutiratzeko, dolarra mesbaliatu du, berriro. Bide batez, makila altxatu du Nixonek eta honela mehatxu egin die Mendebaleko erresuma aurreratuei: "Nere merkatuaren atek giltzaz josiko ditut, zen merkatuetako sarrera zabal-zabal eskaintzen ez badidazue".

b) Gaurko deficit, 1974 edo 1975 eko superavit bilakatuko da eta soberago hau USAk Mendebaleko merkatu bizkorretan eta emankorretanahaligiko du.

Horrela, USAko ekonomiaren hazkundera barreneko eta kanpoko pilaretan sendotua egongo litzake. Gaurregun oraino, USAk aurrera eramanez bidezko politikak hau. Baina Europa elkartzu eta indartuz doan heinean, USAren jauregia berdintzera etorriko da, eta egungo USA-Europa "elkar-go", ez al da orduan Europa-USA "etsaigo" bihurtuko?

G. ANSOLA



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR. GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459 DONOSTIA

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietza, 66

DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziaz berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero: Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz: Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381 Aptdo. 1381

ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:

MARKINAN

M. Loll Agnaga, Artibay, 24

SONDIKA-ASUA

E. Astarloa

LARRUSKAIN

Parrokia

GERNIKA

Ruiz Bustillo

ONDARROA

M. Zulalke

BILBAO

Librería Armendáriz Dr. Arelliza, 50 Librería Azkategui Cinturería, 4 Librería Bilbaína Plaza de los Mrtires, 2 Librería Verdes Correo, 7

GALDAKANO

J. Aitua Urreta, 34

ABADIANO

J.F. Zubero S. Prudenziolo, 7

# IREKIAK IZAN BEHAR...

Zuen baimenez irekitasunaz, zabaltasunaz jardun nahi neuke gaur. Ez neuke nahi aspergarri gertatu. Gai honetaz sarri aski mintzatu ohi da bazterretan eta, kasu, ez guk kanpokoetaz hitzeginaz, kanpokoek gutaz hitzeginaz baizik. Azken dato honek garrantzi handia du, zerbaiten adierazgarri bait da; eta horregatik honetaz mintzatzeari, jardutea merezi duela usten dut.

Agian zeinek ez du entzun, euskaldunetaz berba eginez: «irekiak izan behar, irekiak izan behar...». Galdetu behar genduke geuk non arraiotikan atara duten euskaldunon «itsitasuna». Eta zenbait gauzatan «itsiak» bagina, galdetu behar be, galdetu, zeri ixten deusagun atea eta zergatik. Zergatik zenbait gauzatan bestetan baino gogorrago egiten dugun. Agian horrela gauzak argiago ikusiko gendukez, agian bere mitoren bat jautsiko litzake euskaldunon alderetatik behin betiko. Agian bere, ikusiko genduke, argitze hau norbaiti ez jakola komeni. Agian bere, euskaldunon itsitasunaren mitoak kanpokoan artean indar gehiago jarraituko luke.

Duela zenbait urte norbaiten esaten euskun euskaldunoi geure «ghetto»tik urtetea beharrezkoa zitzagula. Honetaz gogoratu naiz orain egun gitxi urten duen regionalismoari buruz idatzitako liburu batek diñoana irakurtean; liburu horrek be esaten deusku «ghetto»tik eta «provincianismo»tik atara beharra dugula. Liburu horren egilea kanpoko da. Kanpoko esatean, esan gura dut ezaguari guztietarik kanpoa dela, ze badira hemen jaio eta hemen bizi direnak, euskera ikasi be, euskaldunak ez direnak. Azken hauek, funtsean, lehen aipaturiko gizonak egiten dituen planteamenduak egiten dituzte. Irudiz edo itxuraz sokaren bi muturrak badira be, funtsean mutur berbera dela esan daitekegu.

Eta, zer esanik ez, «etxeko» hauek «kanpokoek» baino askozaz errazago sarten deuskue ziria. Ze hemen bizi direnak askotan «etxekotzat» jotzen ditugu, nahiz eta beren joereak euskaldunak ez izan.

Geure «itsitasuna» ez deuskue beti izen bardiñaz aurkezten. Ziria errazago, aisago sarterko, kontuan eduki behar dugu be, beste izen estalgarri bat erabilteak asko laguntzen deusela. Hala ta guttiz be, bakar batzuk diren bezelaxe agertzen jakuz, diximulatu bage. Eskerrak emon behar be.

Bainan gehienak lehenengo lepotikakoak ditugu. Gaur mitologiaren bidez izango da, bihar ikastola «konkretu» hoi beharraren bidez, etzi umeekiko pedagogia «askatzale» beharraren bidez, eta abar... Eta kalamatrika hauetaz baliatzen direnak, guretzako (ez denontzako, zorigaitzez) ideologia «konkretu», garbi baten ordezkariak badira be, ez dute nahi inondikako ideologiaren ordezkariak beren burua agertu. Hau egitea beharrezkoa jakete, ze marxistatzen jotzen dute beren burua eta, jakina, marxismoa ideologia guztien etsai soraioa da. Bada be bakar bat, bere egitekoa jendea «ideologizatzea» dela esaten duena. Bagenekien hori berak esan baino lehen; aztertzea da noski ze aldetikako ideologia ari den hedatzen.

Ez dugu besterik bage amoa irentsi beharrik. Akritiko, post-primario eta euren nahi duten guztia deituko deuskue. Bainan hori gure

akritiko, post-primario eta hoietakoak, dogmakeria hain erraz irentzen ez dugun hoietakoak baizik.


Ederto agertzen euskun Aurtizek ek kalamatrika hoi ostean dagoen dogmakeria. Agian ez jakon asko gustatu norbaiti Aurtizek ifioana. Bai eta berehalaxe aurkeztu deusku, aurkeztu be, Aurtiz personaje akritiko hoietako bat bezela. Ikastolak hil edo biziko egoeran badira be, ez jako hari gustatu ikastoletan eta beste zenbait arlotan «euskaldun izan ala ez izan» leloa defenditutea. Nere ustez ez deusto Aurtizi ondo irakurri. Agian pentsakera akritiko batez hasi jako irakurten, bere pentsakereakide ez dela ondo baino hobeto dakialako. Gainera, oso bitxia iruditzen jat Aurtizek ifioana arestian aipatu dugun lelo hortara gitxitzea eta pentsakerea akritiko baten ordezkariak aurkeztea. Akritiko eta arrotzago da pentsakerea hori zergatik dagoen ez esate! Akritiko eta arrotzago da ikastola bere kontextotik, herri-zapalkuntzatik, atarata! Akritiko eta arrotzago da ikastolekiko gure NAHIA «berezko» nahitaz jotea, gure kontexto osoa ikusitatzu! Nora galdu jakuz ba ikastolak «konkretu» hoiek? Hau kontzientzia kritikoa bada, zilborrik bage jaioa ni!

«Ideologia»-ren kontuak aparteko irazkin bat merezi duela usten dut. Duela gitxi honela idazten zuen baten batek: «Marxismoaz zebait irakurri duenak ba daki, nik eman diodan zentzuaz kanpo, beste bat ere ba duela ideologiak». Azalez behintzat ez dago okerrik, bainan kontuz; hau ziria sarterko beste bide bat izan legike. Ikus daigun mantso-mantso.

Ideologia, gizartearen ikuspegi orokor bat ez izateko tresna bat izan ditekete. Gizonek badute, borondate onez, beren pentsamenduak eta egintzak itxuragabetzeko, deformatzeko joera, beren giza-taldearen interesen arabera.

Bainan ideologiak, bai atzerakoiak bai aurrerakoiak izan ditezke. Lehen atalakoek, gizartearen ezaguera orokor baten kontrakoak dira, ikuspegi orokor horren estalgarritzat erabilten dira. Bainan badira be aurrerakoiak: gorantzako giza-talde eta iraultzaile giza-taldeak; garbi dago gorantzako (asendente) klaseek gizartearen ikuspegi orokor baten kontrako interesak badituztela. Bardin gerta ditekete une historiko baten klase «iraultzaileekin». Esate baterako, Frantziako 1789ko iraultzan Frantziako gorantzako burgesia mota honetako klase «iraultzaile» zen. Azalezko ideologia «iraultzaile» hauek ideologia tenporalak dira; marxismoaz baliatzen badira be, interes atzerakoiak estalgarritzat jotkatzen dute. Lehen aipaturiko frasea, eta beste batzuk be, jarra politiko garbi baten estalgarriak besterik ez dira. Jarrera dogmatiko eta stalinistak. Itz batez, inperialistak.

Ez dut luzatuko. Bildur naiz ez ete naizen inguru-minguru ibilli. Oharño bat gehiago bakarrik: Larresorok (eskerrak emon behar



deutsaguz Larresorori azkenean herriak dituen zenbait egiazko arrotzago arduratzen delako) eta beste askok, ganorabako «ireki» hoiei «ultraezkertiarak» deitzen deustee. Ez jat oso zehatz iruditen, ze ez dira ezkertiarak, eskuindarrak baizik. Bestealdetik ez jat ondo iruditzen beren jokoan jaustea. Urliak, sandiak eta berendiak kristorenak esan dituela, ba itzi bagean! (honetaz

nek ez du esan gura noizik behin kontrako idazlan baten beharrik ez dagoenik). Bainan ez dugu beren esanetara egon beharrik. Hortarako dagoz eta. Ez emon, faborez, dauken baino garrantzirik gehiago. Eta amaituteko, ea noiz bota behar dugun paper— zizkutara «itsitasuna»-ren mitoa. Ze badugu geure supazter-sua zaintzeko eskubide oso-osorik. Bai eta gure etxeko

atea irekitzeko be; bainan jakin daigun, jakin, noiz, nola, zeri eta nori ireki behar. Historian zehar nahiko gixajo eta tolesbakoak izan garelako, zorigaitzez. Zorigaitzez diñot, ez denok aho batez negarrez hasi daigun, jarran-jarri eginez behin betiko geure supazter-sua ondo gordeten ikasi daigun baizik.

JON SABANDOKOA

**ORMAZABAL - DAR DUNIXI**  
ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

**TOLOSA**  
Urrutizkiñak:  
Etxekoa 65 19 60  
Landolakoia 65 19 33

**URRETXUA**  
Urrutizkiñak:  
Landolakoia 67 17 94

**ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumaiakarregei, 7'gn**

**zuretzat etxea ZARAUTZEN**

sarrera **50.000** pezetan

ordainketarako erreztasun osoz

- San Pelayo auzoan
- 560.000 pezetan etxe-bizitza
- Erabat bukatuak ditugu

**Beaz duzun informazio edo argitasuna:**

- Asteartean, arratsaldeko 4-6,30 an
- Ostegun goizean 10-13 an
- Eta Donostiako ofizinetan edozein momentutan

**CSC CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA**  
**AUZO-EGINTZA**  
Prim Kalean, 14-2 garrenean  
Urrutizkiña 426906-429942  
DONOSTIAN  
Publicidad Autorizada n.º 75

**ECHABE**

ETXABEREN  
Musle - Etxea

Fuero'en Enperentza

Urrutizkiñak: 84 10 78  
84 11 24

**ZARAUTZ**

**FAGOR**

edaria epela dagola?  
**FAGOR** 'ek oztuko du bereala

## LIBURUAK

Martin Ugalde edo  
Idazle - Zirrara (I)

Gertatzen da: Idazle bat ezagutu eta gero irakurri duzunaren egilea ez diozu ezagutzen duzunari lotzen. Honek alderdi okerrik balu, egilea ez dela bere obraz bat egin ikustea litzake. Baina ez uste; Martinengan ez dago horrelako arriskurik. Martinen barne-muinetako bizitza sakonegia, biziagia, ausartegia da idatzitakoan ez murgiltzeko. Lehendabiziko itxura... Bai, hala da, lehen ikusaldian Martin gizon on, jator bat zaigu. Besterik ez. Ez ote da posible gure herri desmitifikatu (?) honetan on eta jator izatea nahiko? *Coşas veredes mio Cid.*

## NOREN ERRU?

Gauzak garbiak dira.  
Bost puntutan banatuko ditut eta amaikatxo balirateke!

Lehen puntua: Martin Ugalde periodista da. Nork ez ditu ezagutzen Martinek orain urte batzuek ZERUKO ARGIA honetako azken orrialdeetan idatzi zituen elkarrizketa argiak? Ausartak benetan Martinen lanak, gorabehera asko zituen —eta dituen— H haretaz. Baina Martinek badu bizitza luzea —eta oraino dezala luzea—, periodismo hauzietan. Venezuelan egin zen eta Venezuelak ezagutzen du. Eta Alemaniak ezagutzen du bere lana. Eta Britaina Handiak, eta Frantziak eta Hegoamerika luze sakonak.

Euskal Herriak ez nunbait. Eta ez da Martinen errua.

Liburu batetan argitaratua du «Imágenes de la Semana Santa» kroniken bilduma. Periodiko baten zuzendari ere izana da. Galda dizaiotela Venezuelatik datorren nornahiri nor den Martin.

Cid, badituzu lan hauek ere ikusten!

Bigarren puntua: Martin ipuin egile da. Geroko lantxoetan finkatuko naiz bere ipuingintzan, baina ez dut geroaren gerorako luzatu nahi zera esatea: Martin Ugalderen ipuingintza harrigarria da. Harrigarria du sena. Nola —eta ezinezkoa dut oraindik egia denik sinistea— lezake euskaldun batek beste herri bateko, Venezuelako giroa, haize telurikoa bereganatu eta... adieraz? Gizonaren eguneroko aspergarri eta aberatsaren ikusmira lasai edo haserretua, sakon edo azkarra, fin edo zakarra da Martinen ipuingintza.

Hirugarren puntua: Martinek liburu bat argitaratu behar du Barral inprimategian, eta serioa, oso serioa da inprimategi hori, eta munduko idazle famatuena, munstroen inprimategi da Barral hori. Eta Martinen liburuaren izena «Las brujas de Sorjin» da eta Euskal Herria da Sorjin delako hori eta bere dehadar guziak honetara zuzentzen... Beno, utz dizaiogun alferrikako hitz jariorri. Irakurria dut nobela eta badakit pauso berri bat markatuko duela nobelagintzan, bide berri bat urratu duela Martinek. Izan ere, Martinen maisutza ez da nolana. Teknika berri eta orijinal bat darabilki pertsonaje baten barne-mundutik beste pertsonaje baten barne-mundura igarotzerakoan eta nobela sikolojiko amaitu zela esaten ari garen uste honetan, era berri bat ireki lezake Martinek introspezio lanetan. Badaezpada ere, eta haria galduaz, «berria» eta «orijinala» adjetiboak ez dira berdinak. Zenbat gauza berri gure herrian orijinaltasun falta ikaragarrikoak! Eta orain, arren, erts ezazute hariaren parentesia.

Laugarren puntua: Martinek baditu beste bi liburu ere eta hauek euskeraz. Ipuin bilduma bat «Iltzalleak» izenekoa eta «Ama gaxo dago» antzerkia 1961 eta 1963an argitaratuak. Orain bada editorial bat beste ipuin-bilduma bat argitaratzeko asmotan. «Itsasoa ur-bazter luzea da». Bere garaietan, denon eskuetan dukegunean, jardunen gara berriro.


Bosgarren puntua: Noren erru ote da Martin itsaso ur-bazter luze horretan ahaztutzea? Martin hor dago bere Ondarrabiako etxean, lana egiteko purrkatzen dago, eta purrkatzen ari da lanean. Badakit beste liburu bat ere moldatzen ari dela Euskal Herriko zenbait gizon haundik —haundi adjetiboa ez da behin ere mitifikazio egia denean— azaldu-tako iritzi, kezka eta... itxaropenekin.

Nork ote du errua?

Bere ipuin-liburu baten izenburuarekin erantzuten dut:

ENBATAREN ESKU LUZEK.

ANJEL LERTXUNDI



## FRANTSES SYMBOLISTAK

Puvis de Chavannes  
eta Euskal Pintura

## 1.—ERAKUSKETA BAT DELA ETA.

Negü garai honetan, ohi denez, Barcelona erakusketak ederrak eskaintzen ari zaigu. Barcelonan, Mediterraneoko girokoa denez, negurik izaten ez bada ere, aurtun —dio Jose Pla idazle katalanak— bada, ez baita atertu.

Euriak arrunt izutzen ditu katalanak. Eta erakusketak hori ikusi ere, euria ari zuen egun batez ikusi nuen, hiri handi honetan euria egiten duen egun harrigarri eta bakan horietako batez. Museoko lorategian, gazte bat kazeta irakurtzen ari zen. Aitzinean, Llimona eskultorearen neskatxa biluzirik zuen, loratan zeuden ilaranja-ondoan eta zeru ilunaren pean pareja bat solasean eta musuka, auto baten atearan arrimuan. Museoren barnean, gazte jende asko, unibersitarioak batik bat, hippie apainak eta... artista symbolisten koadro ugari, noski.

Barcelonako Arte Modernoaren Museoa izan da nazioarteko erakusketa hau egin den tokia. Frantziako Kultur Ministerioak eraturiko erakusketan antologikoa izan da. XIX mende azkenean izan zen eta simbolismo deritzan estetik-haro horretako pinturak eta dibujok ikus daitezke erakusketa horretan.

Erakusketa arras ongi zegoen muntatua kartelbiderrakustaila, autore eta fetxak eta obrek behar zuten toki aproposena zutelarik —halakoak baitira berri berria den arte modernoaren museoko salak—. Nik Puvis de Chavannes ikusi nahi nuen, hauxe izan baita symbolist autoreetan hoberenetarikoa eta 1895-1935 arteko Euskal Pinturaren oinarrietariko bat. Honegatik sartu nintzen areto hartan, ikusizun harrigarriren bat behatu nahiez. Horregatik pentsatu dut ene iduripenak adieraztea.

## 2. PUVIS DE CHAVANNES, BIDE BAT, KONDAIRA BAT.

Zenbait urte dela, pintura serioasi ikasten hasi nintzanean, Puvis de Chavannes buruz zenbait aipamen eta hark Euskal Pinturan zuen eraginaz zenbait erreferentzia aurkitu nuen. Juan de la Encina eta Llanos Gorostizari ari naiz. Honek haren bizitza azterkatzerat eta haren obra ezagutzerat eraman ninduen. Jose de Artetche gure artxibero handiari eskatu nion haren berri, baina ezin izan zidan deus eman. Juan de la Encinaren obra, kankailuren batek eraman zuen Bibliotekatik eta... horra non, egun batez, Baionako Pierre Bonard-en Museoan Puvis-en mural bat edireiten dudan. Sakonki ikasi nuen, baina ez nuen nahi aina lortu. Ez zuten deus askorik esaten hartaz arte-hiztegiek. Haatik, frantses Symbolismoaren erakusketa honetan aurkitu dut haren obra, eta bizitza:


Lyon-en jaio zen 1824ean, pintur-tradizio handiko hirian eta Parisen hil zen 1898an. Meatzetako ingeniario zuen aita. Eritasun batek, Italiara joan zen 1847an, eta 1848an erabaki zuen, Frantziara, pintore izateko. Henri Scheffer, Delacroix, eta Couture izan zituen maisu. Muraletan ederrera Chasserico izan zuen. Arteko askotatik bota zuten arren, Pigalle enparantzan estudio bat ipini zuen, Cantacuzene printza izan zuen modelo; honekin ezkonduko da 1897an, hil aurreko urtean.

Gerotik hasi zitzaizkion garaitzak. Baina haren figura beti izan da eztabaidakoa. Aburuak pintatzen zituela salatzen zioten baina haren artea ez da intelektuala. Ez zuen nehoiz symbolista izan nahi izan. Haren helburua hauxe izan zen: «ahalik eta gehien esan, ahalik eta hitz guttienez». Horretatik, symbolista gazteek bere eredu hartu zuten. Eta horretan esegirikoi oihaletan pintatzen hasi zen. Baina gero-gero geratu diren koadroak, koadro tikiak izan dira: «Itxaropena», «Arrantzale gaixoa»... 1895.n kritikak baretu egin ziren eta otortu handi bat antolatu zitoten. Haren heriotzakoan, hileta handiak jo ziren.

Haren obraz esan dezaket, garbiak, bareak eta gogoan erabiliak direla. Marra oso fina eta haren obra handietan kolore ilunak ditu osatuenak: grisak, urdinak, berdeak eta marroiak. Argia iraitzia. Berez-kuntza guzi hauek, zerikusi handia dute 35.ko Euskal Pinturarekin.

Haren obretan ez da bitxiz beteriko jainkosarik ikusten, oihal zuriz jantziriko alegorik baizik. Seurat, Gaudin eta Rodin-ek zuen miratu haren obra eta, batik bat, gerotiko surrealisten, modernisten eta hippiek. Puvis-ek Erromantizismoa eta Surrealismoa bateratu zituen. Poetikoa, gai bat duena eta apaingarria du obra. Egun orokoa den iduria. Ez zuen kopiatzen, errealitatea adierazi baizik. Bere ideiak emateko erabiltzen dituen symboloek osatzen dute haren mintzaera, dio Heinri Heine 1931.ean. Kopiatu baino soma arazi egin ohi du, esan zuen Roger Marx-ek 1895.n. Eta Puvis de Chavannes berak honela zion: «Aburu argi ororentzako dago adierazten dituen pentsamendu plastiko bat».

XIX mendeko zientzi-prozesoren krisiaz geroz, «Ametsaren eskubideaz» pentsatzen hasi zen. Gizarteko gertakizunen kopiatzearen kontra eta naturalezaren garixoa kopiatze hutsaren kontra altxa ziren artistak. Artistek baztertu egiten dute naturaleza, paisaje soila bederen, impresionisten zioten bezala



Surrealistak, modernistak eta hippiak, Sinbolismoan daukate bere sustraiak.

eta naturaleza berri bat dute sortzen, sentitzen dutena. Egiakoa ez da, horien ustetan, materiala bakarrik, sentitzen dena ere orobat. Honegatik kezkatzen ditu filosofiak eta literaturak. Ahalginak egiten dituzte symbolistek egun oroko errealitate isil, magiko eta erlijiosoraino heltzeko.

Ez nau, hortaz, harritu Puvis de Chavannes Zuloagaren paletan influentziarik ez ikusteak, Aurelio Artetarenan ikus daiteken bezala. Artetak, Puvis hilda 4 urtez gerotik ezagutu baitzuen haren obra, zirrara handia hartu zuen haren obra gizakoi amorratua «Arrantzale gizaxoa» ikustean. Horrela, «Itsasoa galduak» obrak, haren halako antzak ditu: kolore gris-berdeskak, eskuen jarrera, arpegi minduaren keinua eta pintura ezartzeko tankera bera ere. Halaber esanen nuke nik «Bafistik» ospetsuari buruz, oso bat baitator (sortze sentiduan, ez imitatze hutsez) «Ludus pro gratia» edota «Gazteak itsas ertzean» obretan Puvis de Chavannes dituen giza-emaume ereduakin. Biak bat datoz marren fintasunean, gris-berdesken gametan, eta gizonaren halako berritatzet primitivistak, arrazaren bidez. Egia esan, gaiak ez ziren gauza handia gure sozialistarentzat, baina mundu esankor, berri eta zorrotz bat, bederen, jasotzen zuten. Parisiko egonaldia ondoren, Bilbora itzuli zenean, familia behartsuen iduri errealistak ematen hasi zitzaigun eta Bizkaia dinamika, soil eta italianizante samar zen bat aurrera atera zuten gizon mardulen kantak eskaintzen.

Zenbat horrelako gauza ez ote zait batera etortzen, errelazio paradigmatico batetan, burura, haren obra ikustean! Aski bedi apunte synkroniko hauekin. Beste gainontzeko badakizueke. Artetak bere ondorengo pintoretan eta egungoetan ere dukeen eragina ezaguna da guzi. Iturriak nituen nik nahi jakin eta haien bila pixka bat azterkatzeak gure kondairaren zenbait gauza argi dizaiyuke.

## 3. BESTE SYMBOLIST BIDEAK.

Puvis de Chavannes-oren obra bikainen artean, ikus ahal ukan genuen Gustave Moreau harrigarri eta nabarmenaren zenbait lan. Kolorez bete mundua eta irudi klasikoak egina, Oscar Wilde-ren mentalidadetik oso hurbil ikusi genuen.

Odilon Redon-en obrak ere bai, Alan Poe-ren ipuinak ilustratzeko egin marrazkiak eta ongi osaturiko eta sensibilitate handiz egindako fantasiak. Paul Gauguin-en zenbait antzezki, naturalezara itzultzeko joera, sensualitatea eta primitivismo horditzaile bat ageri duelarik. Maurice Denis-ek mundu erlijioso berri bat eskaintzen zigan eta Aristides Maillol-ek kolorez eta marrazki onez egin komposizioak.

Hitz batez, erakusketa ona, eta denetarik ikus ahal ukan genuen. Tamala Puvis-en beste oihal batzu ikus ezina! Handiegiak izaki ekarri ahal ukaiteko. Baina arte kontutan, ikusten hasia da hobereana, gainontzeko egun oro egin daiteke.

EDORTA KORTADI

\* Symbolismo frantsesa. Barcelonako Arte Modernoaren Museoa 72-73ko ABENDUA-URTARRILA.

**aiete**

**JAIOZTA**

Arantxa Aldasorok, ikastolako andereñoetako batek alaba bat izan du, familiako lehen kimua. IZARO jarri diote izena. Zorionak! eta ea uzten dizuen gauetan lo egiten...

**EZI-TOKI**

Otsailaren 17an, Ezi-toki delako klub kulturalako gazteek bilera egin zuten, klubaren martxa eta etorkizuna aztertzeko asmotan. Ondorengo erabaki hau hartu ziren: —Bertako eginkizunen zabalkunde gehiago egitea hauzomailan, hauzoko hobekiago informatua egon dadin.

—Aieteko gazte guztiak bertan biltzeko modua lortzen gehiago saiatzea.

—Klub barneko gobernua ardu gehiago jartzea eta karguen erreleboa gazteagoel ematea.

—Delako klubaren ekintza-alor guztiak suspertzea, hala nola mendigoizaletasuna, kultura-saiakerak, jolasaldiak, biblioteka etab.

—Maiatzean izango diren hauzoko urrango festak antolatzea.

—Zenbait larunbatetan kluba txukundu, pintatu eta egokitzea.

**MUNTOBIDE**

Aietearrok beti Muntobide izenez ezagutu dugu Muntotik seminario aldera dihoan bidea. Orain, eta ez dakigu zergatik, Aiantamentuak Paseo Dr. Marañón izena jarri nahi dio. Muinak berotu arren, ezin dugu bada guk ikusi zer interes dadukan guretzat betiko izen dotorea negargarrian aurkitzen da. Berrea eta atsegina kendu eta bere ordeaz kanpotar batena jartzea. Hori aski ez delarik, Muntobide egotan bi auto gurutzatzeko, batak geldirik egon beharra du. Zer esan orain eruz pasatzen hasi diren kamioietako bat parean suertatuz gero? Bildur gera ixtripuz hildakoren bat noiz-nahi izango dugunaz. Zergatik ez ditu hartzen Aiantamentuak oraintxe bertan beharrezko neurriak? Minutuero-minutuero pertsona asko pasatzen da bertatik eta askotan bi, hiru eta lau umerekin, ikastolara dihoaztenak adibidez. Badakigu bihar edo etzi Muntobide zabaldia eta egokitua izango dela, baina gure galdera zera da, ea zergatik ez den honaz gero hori guztia egin... Autobusak ezin dira bertatik pasa. Beraz, umeek, oinez pasa behar dute alderik alde. Zenbait ordutan Donostiatik pasatzerik ez duten kamioiak ere Muntobidetik pasatzen dira... Guk, hestuasun guztitan, lehenbaitlehen zabaldia eta egokitua izan dedila eskatzen dugu. Gainera, badakigu hortarako obrak behin baino gehiagotan subastatuak izan direla eta baita enpresaren batek hartuak ere. Gero, ordea, obrak baztertuak izan dira eta guk ez dakigu zergatik. Halere, norbaitek jakingo du. Azken soluzioa lortu arte, behar bada, beste hau izan daiteke egokiena, Pasai Donibanen bezala semaforoak jartzea. Soluziobidea daukanak interesa jar dezala eskatzen dugu, nahi (eta behar) dugu ezin dugunez gero...  
TXERTUBI

**elgoibar**

**ELGOIBARKO IZARRA**

Ikastolaren ardura duen elkarte hau 500 haur eta 1000 bazkide baino gehiagorekin ari zaigu lanean. Ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Elgoibarko IZARRAK, urtarilaren 30ean ospatu zuen bere urteroko Batzar Nagusia. Bertan Juan Jose Araolaza izendatu zen lehendakari bezala eta Manolo Zabala ordeko. Eskerrak bere karguautzi duen Luis Bilbao lehendakari prestuari.

**ALFABETATZEA**

Euskaraz jakinik irakurri eta idazten ikasi nahi dutenentzat al-

fabetatze saio bat eratu du Elgoibarko IZARRAK Euskaltzaindiaren babespean. Horretaz gain euskara kurso bat ere bai euskara ikasi nahi dutenentzat. Elgoibartar denek txalotzen duten ekintza. Honetaz zerbait gehiago esango dugu urrango batetan.

**GARATETARRAK**

Gotzon eta Erroman. Amaitu da marxismoa eta komunismoari buruz bi anaia elgoibartar hauek eman duten jakintza haroa. Jendak neurri politean erantzun dio ikastaldi honi.

**“OPERACION PAPEL” ETA AUBIXA BASEERIA**

Ikastolaren beharretarako eta bereziki Aubixa baserria gertutzeko behar den diru-laguntza eskuratzeko, “operación papel” delakoari eman zaio hasera Elgoibarraren Paper biltzea ostiralero egingo da, arratsaldeko zazpitan. Kartoi, periodiku, errebista eta paper orok balioko du. Biltzea berriz basura biltzea bezala egingo da. Paketeak kale kantoira, portale aurrera ateratzea erregutzen da. Gogoz eta gogotik ekin dio “Aubixa” baserriko komisarioak, baserri prestatzeari. Denok dakigunez, ikastolako umeekin udaleko batzu gertutzeko hartu zuen Elgoibarko IZARRAK baserri hau. Larunbatigandea eta udako zenbait egunetan han ikusiko ditugu Aubixan gure umeak beren oporretako egun batzu igarotzen.

**ONGARRI**

Badiurdi neguko hotzak ekintza kulturalen epeltasun eta berotasunean murkiltzen gaituela. Elkarte eta soziedade guztiak azal-berritzen dabilzkigu urte berriaren haro honetan. Urteroko batzarrek, lehendakari hautatzeak tab. ONGARRI, kultura alorrean mugitzen den Elgoibarko elkarte bat dugu. Zenbait ekintza eta ikastaldi, konferentziak tab. eskeintzen digu urtean zehar. Egin diren URRUZUNO jai hauk ere berari zor diekiogu hein batetan. ONGARRI, otsailaren 13an, asteartez, ospatu zuen bere urteroko batzarra. Gauza batzuen artean lehendakari berria ere izendatu zen. Luis Ulazia zenari Antonio Irigoienek jarraituko dio bere karguan. Hala bedi ONAGARRI eta Elgoibarren onetan.

**BIBLIOTEKA**

Elgoibarko elkarteetako ordezkari batzuek biblioteka gaiari erantzun nahirik, bilera batzu egiten hasiak ditugu. Agian gure bibliotekak badu mugimendu eta bizitasun berri baten premiarik. Nolanahi ere komisio bat egitea arraz interesgarri da arazo honi erantzun egoki bat ematearren.

**P.M. URRUZUNO, IRAKAS-KINTZA KOPERATIBA**

Elogobarko IZARRAkoak irakaskintza koperatiba bat sortzekotan ari zaizkigu. Ikastolaren lege alderdiari erantzun bat ematea da hauen asmoa. Dagoeneko pauso batzu badituzte emanik eta estatuto batzu eratzeko bidea egin dute. Koperatiba honi Pedro Migel Urruzuno koperatiba deritzake, Elgoibarko euskal idazlearen oroigarri.

Etxe-petar-peko

**arrasate**

**LANKIDE BATI**

Oraingoan ezin gara Kronikalari barren-hutsak izan, orain bihotzak bait dio. Zeinek pentsa, egun batzuk direla, irakaste trebe eta burrukalari hintzen horrek, sortze-etsaien indar izkutuen menpean erori eta hemendik betiko alde egingo huala? Oraingoan ere kukuak makur jo zigun. Bainan hago ziur. Askok densez-

tatu nahi izan arren guk zalan-tzarik ez dinagu hire langile eta urduritasunaz, eta hemen, eta nun nahi, lan egiten duenak din balio, nahiz eta beste bidetatik zehar jarraile itsu gehiago egin izan ahal.

Halabear zoritxarrekoak egingo din hik txertaturiko mentua ximeldu, hago ziur.

Maskelu taldeak -2- Arrasaten Otsailak, 19

**pasai donibane**

**ASTILLEROS**

«Astilleros Luzuriaga» lantegiko langileak, langileak, grebako edo huelgako hirugarren astean sartu dira, lerro hauek idazten ditugun sasoiari behintzat. Goizean-goiz lantegira abiatzen badira, berehala etxeratzeke izaten da. Lanuzte hauk direla-eta, 40 despido eskutitzak zabaldu dituzte nagusiek langileen artean. Ez dago elkarrizketarik. Nagusiek eta langileek beren alderdiari eusten diote, hots, langile despidituak laneratzin ez diren bitartean, ez omen dira hasiko, diote langileek; nagusiek berriz, lanerako bidean jarri arte, eskatzen dituzten baldintzak edo kondizioak ez omen dituzte onartuko.

**PYSBE**

PYSBEk bi lantegi ditu: bata, Galian (Ferrolen), Euskalerrian (Pasai Donibanen) bestea. Ferroleko lantegiak, 400 langile gutxi gora behera ditu.

Lantegiko agintariak Ferrolen izan dira, horko langile arduradunekin bilduz. Lantegiko ekonomiaren malkatasuna eta larritasuna adierazi ondoren, lantegia desegiteko eta ixteko erabakia hartu zutela esan zieten. Hortarako, ahalik eta azkarren, beren egoera edo situazio larria Probintziako Agintaritzaren aurrean azalduko zutela; era hortan, zeharo ixteko baimena lor dezaten.

Langileen arduradunek, situazio honetara iritxi baino lehen (erabat ixteko alegia), kooperatiban bihurtzeko gogo bizia agertu zuten. PYSBEko agintaritzak, ontzaz hartu zuen arduradunen proposamen hau eta sendo aztertuko zutela hitzeman zien.

**MENDIZALEAK**

Datorren igandean, Martxoaren 11an, ITSAS-MENDIko mendizaleak, ibilaldi dotorea antolatu digute, hau da, Belate-Saioa-Lanz. Azkeneko herri honetako Ihauteiak ikusteko asmoz. Joan nahi duzuenok, eman zaizkiezue zuen izen-deiturak Itsas-Mendikoei.

Iñalurretak

**BLAS DE LEZO**

ETXE ONTAN DAUZKAZU SABARRO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EBARI GUZTIA

Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutiziak: 41 20 65

DONOSTIA

**MUEBLES**

**URRETAVIZCAYA**

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EBERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEZ (Nobis)

**JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERBIA DONOSTIAN**

URTIETAN LAN GIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA**

SARASATE, 5

TELEFONO 224440

Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Berriain.


Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Eneritz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Berriain.

**ERLOJU ETA BITXITEGIA**

*Eduardo Chopetia*


Estarria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA




Orlo



Estibalz



Iruñia



Alkiza



## andoain

ETXEBERRIETA ahanzi dugu: Fotbal zelaian izaten diren jolas aldiak izango ez balira, Etxeberrieta badanik ere ez ginake ohartuko. Ijito alderri bat balitzan utzia daukate: espalo berria egin zanez geroz, ez da han ezer berririk egin edo nabaitzen. Direla hogeit urte edo egin ziren etxeak egin ondoren, ez da deus onuragarririk egin. Zergatik? Gai honi erantzuna ematen hasiaz gero, orri luzeak eta zabalak beteko genituzke eta agian okerren bat edo mingarrien bat ipiniko genuke eta bestela ere nahiko behazun eta kirats badabila haizean zabaldurik, guk txoko otzan honatik usain txarrarik zabal gabe.

Baina nik deritzana agertzea bidezkoa denez gero, hor dihoaz nire iritzi ahulak. Etxeberrietan. Txitibar basetxea egon beharrean, Sagarmendi basetxea egin izan balitz, Etxeberrieta ez litzake «etxe-zahar-eta» izango: izenak erantsirik darimana agerian azalduko litzake. ETXEBERRIETA itzak, ETXE-BERRI-TOKIA esan nahi du. Orain ehun urte, hala izango zen, baina orain UDALETXEAK egin lezakeen gauzarik egokiena, izena aldatzea izango litzake eta lehen idatzi dudanez, ETXE-ZAHAR-ETA ipintzea izango litzake egokien.

Direla urte batzuk, herri berria hor egin behar omen zuten baina asmo haiek aldatu egin zituzten eta etxeak egite hori beste tokietara eramane zuten eta baitipat Sagarmendi eta hilerrri ingurura. Txitibar aldean, bidezbalaren bi alderdian dauden lur ordekak, etziran nunbait egokiak etxeak egiteko: galurretan, malkarretan, sakonetan egitea bidezkoagoa zeritzaten eta horrela egin dute. Etxeberrietari noiz iritxiko zaio bere garaia? Gizaldi edo mende hontan ez behintzat: hurrengo gizaldiak ezagutuko du ETXE-BERRI-ETA, guk ez dugu eza-gutuko, noski.

Ubiluts-Torrea ere botatzea diozela diote: bidezabal berria egin behar dutela edo eta garai batean «Jauntxo»-ena izan zan dorre-etxea badijola. Zenbat urte dituen, ziur ziur ez dakit, baina oker handirik gabe, bostehunen bat urte izango dituzte etxe horren oinarriek. Garai bateko «Jauntxoak» han biziko ziren harro-harro, bere inguruan zituzten gizaki guziki mendeen hartu nahian: haiek aspaldi hil ziren. Hala eta guztiaz ere, etxe hortako armariak, diotenez, honela dio, erderaz, «MAS VALE PAZ» eta bi esku elkarririk eman ageri dira.

Garai haietan nunbait etziren guztiak guda zaleak, pake zaleak ere baziren. Dena dela, etxe handi hori badao: Euskalerriko etxeak badute bere egitura berezia eta etxe-dorre horrek badu berea, gurea: Berrozpe, Jauregi, Bazkardo, Azelain, Sagarmendi eta gehiago ere badira. Honek oraindik hor daude, zutik: hau badao. Hurrengo zein ote?

Taldeko BINGEN

## mutriku

### ITZALDIAK

JAUJAKO elkarteak, kultura sailleko gazteak eratu, goren-goren-eko izketaldi jakingarririk entzunak ditugu. Aurreko astean, Benito Ansoa apaiz jaunak, SEXO galez, egundoko izketaldi bikainak eman zizkigun. Oraingoan, Karlos Juarez, sendagillak, LIZUNKERIZKO GAITZAK gai arturik.

Bai bat, nola bestea, biak, oso argi eta jakituriaz beterik azaldu ziren, izketaldiaren muin eta sustrai guziki, zuzen eta zeat azalduz, guztiak erraz uler zezaten. Itzaldi sakonak, entzule guztien gozko izan zirela, zalantzarik ez dugu. Zorionak kultura sailleko eratzailleei.

### ARRANTZALEAK

Neguko egoera luzearen ondoren, gure erritar arrantzaleak itsas zabalera atereak dira zerbitu arrantzatzeko asmoz, baiña beldur naiz, atera ziren beziñ utsik ez ote di-

ren bihurtuko. Aspaldi ontan bai dirudi, Kantauri itsasbazterra urritzen edo zekentzen ari dela. Dena dela, itsasgiro on, eta arrantza aundiak ekar ditzatela opa diegu.

### MUTRIKUAR ANTZEZLARIAK ZIZURKILEN

Otsailaren 17an Zizurkilko Ikastola aretoa GOIZEKO IZARRAKO antzezlari trebeek, bi eman-alditan antzeztu zuten, arratsaldean eta gauean, APAIZ LANGILLE ETA GIZON aurkezturik. Guziek ondo baiño obeto lan egin zuten, bakoitzak bere eginbeurrak zuzen beteaz. Txalogarria da antzezlari talde onen jokabide bikaina. Oraingo bidez talde on eta aukera-aukerakoa osatzeko bidean dihoaztela derizkiot. Aurrera gazteok!

### EZKON DEIETAN

Ezkon-deietan arkitzen dira, Mikel Pexerean (Pau, Frantzikoa) Maria Regina Demiguel Lezertuarekin. Luken Okandazana Badiola (Ondarrokoa) Maria Luisa Berriozabalgaitia Olariagarekin. Zorionak, eta zorionsuak izan ditezela opa diegu.

### ANDONEGI

## bilbao

### BILINGUISMOAREN INGURUAN

Z. A. honetan bertan adierazi zen bezala, Euskal Kultur Mintegiak antolatutik, bi hitzaldi eman dira Deustuko Unibertsitatean bilinguismoaren inguruan. Joseba INTXAUSTI bilinguismoaren arazoa psikologiaren aldetik aztertzen saiatu zen. Euskaraz izan zen, eta, dirudienek, zenbaiten adimendurako zail xamar gertatu omen zen. Ea horrela euskara lantzerantz behartzen ditugun geure buruak! Bigarren hitzaldia J. URBUTIA irakasleak eman zigun. Honek lege aldetik gorabeherak aztertu zituen. Gaia, interesgarria oso, eta ezagutzea komeni zaiguna. Norbait esan dezake legeak oso politik izan ohi direla teoriak, baina praktikara eramaterakoan egiten dutela huts. Egia izango da, baina hala ta guztiz, ezin uka interes haundiko gaia dugula hau. Horregatik, hitzaldi honetara ere jendea erruz etorri zen.

Bi hitzaldiok izan duten harre- ra onak adierazten duena zera da: jendeak atsegin duela gaia: bai pedagogia aldetik, bai soziologia aldetik eta edozein aldetatik. Beraz, azterketa sakon baten behar- rean gara. Honek, behar bada, Euskal Kultur Mintegiak langile purrakatzen horiek bultzatu egingo ditu hurrengo urtean gai honi be- roni sakontasun eta zabalera haun- diagoko hitzaldi sail bat eskei- ntzera. Honela espero dugu.

### BILINGUISMOA ETA BILBO- KO HOJA DEL LUNES

Euskaldunok —Bizkaia aldetik gabiltzanok batikpat— ez dugu poz haundiegirik izaten Bilbon argita- ratzen diren hizperringiekin. Ba- tek zerbaite ateratzen du «Egunon amigos» izenburu bitxiaren itzal- pean (izenburuak berak bilinguis- moa ederki baino ederkiago adie- razten digularik). Baina sail hor- rren pobretasuna ikara emateko modukoa da. Besterik ez dugu ikus- ten hemen, noizean behin azaltzen den eskela horietakoren bat kon- tutan ez badugu hartzen behin- tzat.

Baina hau dena egia izanik, poz- garria izan zitzaidan Otsailaren 19ko Hoja del Lunes delako kaze- tak bilinguismoari eskeini zion orrialde osoa. Urrutia irakasle- kin izandako elkarrizketa mamitsu bat zekarren eta baita, gai honet- az UNESCO-k egindako agiriaren laburpen bat ere.

Beraz, Deustuko hitzaldi horiek beren frutua ekarri dute. Guk HO- JA DEL LUNES-i eta idazlaren egileari —Jose Manuel Alonsori, alegia— zorionak ematen dizkiogu. Behar bada, jendea esnatzeko izan daitekeelako artikulu hori.

Baina (gure baratzetan beti sor- tzen den baina) bildur naiz hir-

peringiri horrek eta artikularen egileak eta baita irakurleak ere ez ote duten Urrutiaren hitzen oihar- tzuna behar bezala jasoko. Izan ere Urrutiaren azken eskaria —Alonso jaunak dioenez— honela izan zen: ahaleginak egiteko eus- karak jasan duen zokoratze horri erremedio on bat jartzen: «se atre- vió a pedir a los medios de infor- mación que hicieran algo para sa- car del arrinconamiento al vas- cuence». Beharrezko da —jarrat- tzen du— ikastolen eta irakasleen alde giro egoki bat sortzearen lan egitea eta horretarako kolabora- zioa.

Eta ni, irakurle, bildur naiz, hitz- hutsetan ez ote den geldituko de- na. Hizperringi batean azaldu da hizperringieki eta beste gainontze- ko komunikabideei egiten zaien es- karia. Beraz, hizperringi hauek ez badira erantzuna emango dutenak, zuk esan nork erantzun lezakeen. Hau da, hizperringi horiek ez ba- dute Urrutiaren eskaria jasotzen, nork jasoko du?

### BESTE HITZALDI BAT

Apellanizek eman zuena Euskal Prehistoriari buruz ere oso interes- garria izan zen. Aretoa guztiz be- teta irakasle gaztearen hitz jario bikaina entzuteko. Euskal Herriko Prehistoria aztertzeko metodologi- az mintzatu zen, kultur aldaketaren fenomenoari begira batez ere. An- tropologia kulturalaren arloan guz- tiz interesgarria da hau dena eta Apellanizek bere jakituriaz bene- tan txundituta utzi gintuen.

### DEUSTUAR

## zumai

### ANETIK ERRETIRATUAK

Herriko seme den Fernando Ga- jate arkitektoaren ardurapean ha- siak ditugu beheko plazan, frontoi- atzean, zaharrentzat etxe jasotzen. Asmoa dutenez, hilabete gutxi ba- rru bukatuta ikustekotan izango gera. Lanbide hontaz zer edo zer esateko asmoa badugu, baina, uste- dit duen inportantziagatik astiro hartzea merezi duela.

### DENOK IKASLE

Hau izan behar genduke gure bizitzako helburua, «beti ikasle». Gizonak ez baitu iristen behin ere jakintza goimaila. Jakintza be- rorrek neurri jakin bat ez duen bezala. Zumaiaren ere aurtengo ur- tea euskal kulturaren arloa, bide onetik abiatu deladerizkiot. Ez da- kit noraino iritsiko den, baina, ha- siera ona izan du, eta jarraipena ere hala izango duen ustetan naiz. Oraingo alfabetatze lanean sei talde dira hasiak. Guztitara berro- geita hamarren bat lagun. Hiru talde, kanpotik etorri den jendea- rekin, eta beste hiruro bertakoe- kin. Hemengo jendearekin ez da ba- tere kanpainik egin. Taldeak mar- txa bat hartzen dihoazen heinean, pixkanaka talde berriak ugalduz joatea, da duten asmoa. Etorri- kin hauekin berriz al dan zabalena jo- katu da, ez baitugu behar bezala- ko hartu-emanik eta hortarako medio guziki erabili ditugu. Kan- poko jende hauek geureganatzeak izugarriko inportantzia du gure herrian gaur egun. Asko dira, gu- re herri ditugu, edo izatera iritxi behar dute. Noiz edo nola, ez dugu erraza izango konponbide bat bi- latzen, baina gauza bat bada gar- bi ikusten dena, hots, zer edo zer egin beharra dugula. Etorrizunari begira jartzean gauzak ilun ikus- ten ditugula ere aitortu beharra dago. Zer bide aukeratu etorri- horiek enskaldunzteko? Bertako jendea kontzientziatuta bageunde gaitzerdi, baina zenbat gera gaur gure herrian kezkatu horrek? Ez degu bada asko eskatzen: kezka. Hori ere ez bai dugu ikusten. Ta hortara iristen ez bagera non gel- ditzen da ekintza? Bide onena edo interesgarriena eskola zitekean.

Baina nolakoak ditugu? Ez ahal ditugu herri kulturari begira za- paltzaile haundienak? Zer espero genezake horietatik? Noiz esnatu behar dugu? Oraingo galdera ge- hiegi dihoaz, banaka erantzuteko. Dena dela, nere zorionak alfabetatze kanpaina hau eratzeko eta ja- rraitzeko kemena deutenoi, zuen-

gan baitu herriak zer edo zer iza- teko itxaropena. Nik behintzat bai.

### KONPONDU BEHARRA

Karretera jenerala, bide nagusia, oso gaizki daukagu. (Hau da, zubi- haundi eta zubi txikitik pasatzen den bidea). Zumaiarrek ez duzue nik esan beharrik. Eta kanpokoek ere, inoiz kotxean hemendik pasa bazerate, laster jabetuko zerate.

Kolejio eta eskoletako umeak, langile jendea, oinez, bizikletak, moto, kotxe, kamioi, ezker eskubi, haruntz eta honutz... Hori da saltsa sortzen dena!

Eguraldi txarra danean, dena putzu eta basa. Gaur bertan ere handik pasatzen, hura dutxa, ze- harka kamioi batek debalde eman diguna! Baina txarra ez da hori, Zumaia arrisku gorrian da- gola baiziki. Bizia jokatzeko ari gera. Neska txiki bat hanka hausita da- go, kolejiotik irtetean kotxe ba- tek harrapatu zuen ta. Gaur ka- mioi batek busti gaitu, baina on- doren zetozen bi kotxe alkar jo- dute, hainbesteko putzua ikustean aurrekoak gu gehiago ez bustitze- arren golpetik frenatu baitu. Gau- zak zabarkeria honetan daudenean, errugabeak dira pagatzen dutenak.

Bitartean, etxe berriak jaso eta jaso ari zaizkigu bide honen er- tzetan. Urte hau bukatzerako, hi- rurun eta berrogeita hamar fami- lia gehiago gutxienez biziko dira inguru honetan. Aingeru guarda- koek ordu extra ugari sartu be- harko dute, gu zainduko bagaituz- te.

Konponbidea zaila bala, hutsa. Nork eta zergatik atzeratu ote du zubi-haunditik zuzenean Txikierr- ra bidea egiteko asmo hura?

Dana dala, dei zorrotz bat egin nahi dugu, zumaiar guzti eta ba- koitzari. Gure herrigintzan badu- gu zer eginik. Gure eta ondoren- goen bizia jokatzeko ari gerala iku- si eta muttu jarraitzen badugu, gure txepeltasuna garbi adieraziko duen hitzik enskeran ez dut aur- kitzen. Gure aurrekoak nonbait ez ziren horrelako eta hitzik asmatu beharrik ez.

### OLARRU

## gernika

Aspaldian ez dugu Gernikako be- rriak irakurri, eta hona non kan- pokoa naizen honek izkribatutako lerrook. Ea bertoko bat zirikatzen dugun!

### IKASTOLA

Gernikako Ikastola 1966-67.ean sortu zen, andereño batek 20 haur- zuelarik. Gaur, sei irakasle (lau neska eta mutil bi) dira, 186 ha- urrek, titikizandik hasi Educación General Básica delakoaren 6garren mailaraino. Zazpi ikastaro hontan, ikusten duzenez, bai bide luze!

Ia hasiez geroztik legepeetan ipi- ni nahi zuten Batzordeak Ikastola, baina alferrik: paper mordo bat, Bilbo eta Madriderako ibilaldiek ez dute orain arte fruturik eman. Areago: egun hauetan larri ager- tzen da Ikastolaren etorkizuna. Al- kateak jakin-erazi dio Ikastola-Ba- tzordeari Bizkaiko Gobernadore- aren erabaki bat. Batzate beste ho- nela dio: kontutan harturik esko- la berrietan leku nahiko izango dela ume guztientzat, Ikastolak bere ateak itxi behar ditu.

Hori ikusita, pentsa genezake Ikastola erdal eskolen zerbitzutan egon dela orain arte, hau da, Ika- stola bizi egin dela erdal eskole- tan leku nahiko ez zelako (mese- dea eskertuko dea?).

Dena dela, eta gauzak orren gorri agertzen badira ere, guk ez dugu uste zazpi urtetan egindako lana tupustean suntsi daitekenik. Jendearengan dugun konfiantza eta ikastolak hartu duen sendota- suna ez dira nolanahekoak.

Lehendakik bazekien Batzordeak Gernikako ikastola ez zela aginta- rien gogoko. Aipatu dugun paper- kontua alde batetara utzirik, dela hilabete egiteko zen futbol-jokaldi bat ikastolaren alde, Real Socie- dad eta Bilboko Athletic Viejas Glorias direlakoekin. Lan egun falta zirela, baimena ukatu egin zitzaion, zergatik esan gabe.

Zer esanik ez, gurasoen, haiz- deen eta irakasleen artean kezka

handia da. Entsi DENOK Gerni- kako ikastola bizkorri!!!

### BESTE

Zenbait gernikarri entzun diogu- nez, lehen baino areago entzuten da euskara herrian. Baliteke hori. Baina gure hizkuntzaren egoera oso ahula da hemen ere, eta bes- te herrietan bezala Gernikan hon- taz gara konturatzeko, alegia, 25 urtetatik gora euskara dela sarria- go erabiltzen; gazte eta gaztekoen artean oso gutxitan, eta haurren artean hedatuago dela (batez ere 0-5 urte artekoen artean). Ohi den moduan, ama erdal-zaleak ez dira gutxi. Zoritxarrez, gure madarika- zino gabe, askotan begitarte ona aurkitzen dute holakoek. Noiz ar- te?

Munduko jenderik azkarrena du- zue Gernikakoa. Ikus, bestela, no- la bihurtu zuten astelehena jai. Zinez bizirik izaten da Gernika astelehenero. Inguruko baserriak eta tratulantak, merkatua, auto- busak, pilota-lekua, bai dira ikus- garri Gernikako astelehenak!

Daniel Zubiondoko

## bergara

### ERRIKO BERRIKETAK

Lapurra edo lapurrak? Egun au- etan bada errian jarduna. Aspaldiko ordez astelehen astear- teko gauean lapurrak izan ditugu; zenbait denda aztertu dute.

Igarzaren artile denda. Garita- noren bizartegia. Mujikaren arate- gia eta «Intxorta» kafetegia. Era- mandakoa baiño aundiagoa izanda egin duen kaltea ate gaineko leia- rrak puskatuaz; baiñan lapur xe- libre xamarrek bide dira, dirua beste gauzarik ez baitute eram- an. Pentsatu bearra izango da gau- zaiak geitzea.

Aurreraka goaz.

### AUTOPISTA

Jakin degu eguneroko aldizkari- en bidez oraintsu eldu dirala Maltza- gatik Gasteizera doan autopistaren plana.

Emen bertan Zarautz! Zubieta kaleko 48-50 zenbakiko etxearen gainetik; Etxe-aundi, Manso, «Sier- vas de María» lekaima etxea az- pian artzen dutelarik eta baita bur- diñolako galtzairu labe berriak ere; ez, ez, Madrillen ezdakite emengo berriak.

Burubide puxka bat eskatzen de- gu.


Datorren illaren azken aldera erri- ontako abesbatza (orfeoi), Madri- lleria dihoakigu; an TV orkestare- kin «Israel Eijton» abestuko dute. On Odon Alonsoren ardurapean. Zenbait palestinoi, ez zaio atse- gin izango abesti onen izenburua. Zer esanik ez dago, gure erriko abestalde oni opa digula txalorik beroenak; aurrez aurre Gargar- ren izena bear dan toki gorenean utziko duela.

Alako kantari batek esaten zigun ain ezarri onak, Pol-Poleko urari eskerrik direla. Egitan, Bergarak ba- du zer esker eman ur oni, ba kantariak ez ezik bere oialetan mar- go onenak eta emakumerik polite- nak agertzen dituelako.

### ERIoTZA

Illaren 9 an lurperatu zan Sotil- tar Juanita. Bere illoba Joxeba eta Iñakiri gure naigabea, agertzen diogu. G. B.

### MENDIKOR



**ataun**

«ZERUKO ARGIA» beronetan eman nuen, Ataun San Gregorion urtarilaren lehen egunetan izan ziren jai berezien berri. Egitarau hartan barna, haurren idatz-txapelketa bat topa genezaken. Idatz-txapelketa hura, bi mailatan banatu zen: sail bat, 11 urtetik 14 urte bitartekoak osatzen zuten; bestea berriz, 11 urtetik beherakoak. Bada, bi sail hoietakoren lehen hiru lan-txoak argitara emango ditugu. Gaurko alean, 11-tik beherakotako lehenengoa (hots, Simone Begiristainen «EGUBERRIAK» izenekoak), eta 11-14 urtetako lehenengoa (Josu Munduateren «IBILALDI BAT» izenekoak).

**IBILALDI BAT**

«Negua da eta mendiak elurraz beteak ditugu. Egun batean lagun guziyak alkartuta gauderik mendira ibilaldi bat egitera pentsatzen dugu. Arratsaldeko hiruretan irten-tzen gera inguruko mendietara. Lagun batzuk eskuak eta anak ormatuak dauzkatela arratsalde okerra pasa zuten, besteak asko jolastu ginan.

Puntaren puntan geindenean gainera jantzia hartu, ordu hartan anarak, hartu ipurdipean eta irrist egitera edo skiatzera etorri zitzaion burua. Orduetik aldapa txiki batetik behera joaten ginan gero ankan indarrekin gelditurik.

Bainan lagun bat bidetik kampa-tera aterik aldapa handinetik behera irten-tzen eta zugaitz batekin jozera zijoan, to, golpe ankakin gelditu zen, hiltzeko arrisku handia zekarren.

Mendi hartatik atera eta bertako beste batera, eta han liana deitzen zaien gahean zintzilikatu eta arris-kurik gabe denok oso ederki ibili ginan.

Urrengo egunean ibilaldi bera egin genuen».

ELIZAMENDI  
(Josu Munduate)

**EGUBERRIAK**

«Eguberrietan Jesusen jaiotza ospatzen degu, eta hori ospatzeko lendi datozen oitura batzuk baditugu Euskalerrian hots: Belengo estalpea etxeetan ipintzea, irudi hauekin: Jesus haurtxoaren irudia, hartzaitxoak Jesus haurtxoa agurtzen eta abar ta abar. Onezaz sendiak euren familin etxeetan biltzen dire afaltzen.

Guk baditugu oitura batzuk hauek dira: Eskean ateratzea, jostailuak haurreri jartzea eta abar ta abar.

Jesus orain dala 1972 garren urtean jaio zen eta artzaiak entzun zutenean aingeruaren turuta otsa laixterka joan ziren Jesus haurtxoa agurtzera eta andik pixka batera erregeak joan ziren Jesus haurtxoa agurtzera eta sari hauek eraman zitkioten: Urrea, Zillarra, eta abar ta abar.

HARRI  
(Simone Begiristain)

Oharra: Lantxo hauek, ezer aldatu gabe birridatzi ditut: ez ortografiarik, ez deklinaziorik, ez aditzarik, ezer aldatu gabe.

**zegama**

Berri triste batekin ebakitzen dugu euskal aldizkarietan gure herri honek mantentzen duen ixiltasuna. Bai, denok ezagutzen genuen. Eta era batera edo bestera, uste dut, denok maite genuela. Dinti-Barreneko bertsolariak utzi digun hutsunea bete ezinezkoa dela esango genuke. Eta hutsune hau gehiena sufritzen ari direnak bere sendia eta andregai direla uste dugu. Ilarra hauek ez ditugu zuek pozutzeko asmoz idatzen. Zuen sufrimentuan parte hartu nahirik baizik.

Halabehar beltz batek ebaki dizkiz bizitzaren zutarrak kamino ertz batean. Hire sendia, andregai, lagunak, bertsoak, Aldaola gaineko txabola eta beste laguntzeko hik izan dean grina utzirik izkutatu haiz gugandik. Zergatik joan haiz ain azkar?

Gu hemen ibiliko gaituk ordua iritxi arte. Eta bitartean gorputzez hilda egon arren, gure ezpain-bihotzetan biziko haiz. Egunen batean alkartuko al gaituk MAITA-SUNEZKO HERRIAN!

Hileta egunean hire lagun batek

bertsoz eskeinitako AGURRA ber-ritzen diagu guk ere.

Ai Joxe Ramon ia egongo zera Jaungoikoarekin. Bere ondora ez zera joan oso urte askorekin. Zure hiletan bertsolariak oroituz gera zurekin. Gure ordua datorrenan oroi-tu zaite gurekin.

Zegamako Hire Lagunak

**soraluze**

**AGEDA DEUNAREN BEZPERA**

Urtero bezela Ageda deunaren bezperako ohitura onak galdu ez ditezén, aurtén ere «Allegro» soziedadeko abestaldeak Aszentsio apaiz jauna buru zutelarik eta txistulari gaztetxoak, herriko kale gutietatik zehar ibili ziren, Ageda deunaren abesti goxoak abestuz, biribilketa alaiak joaz eta dirua batzen, beharrea arkitzen ziren sendiei laguntza eskeintzeko.

**ZORIONAK**

Ataltxo honen bidez, gure herriko idazle trebe den Larrañagatar Ramirori zorionik beroenak bidaltzen dizkiogu Ramon de Gorosta izenburuarekin argitara duen liburu bikainagatik.

Liburu hortan Deba ibarreko iskulu-egile baten bizitza apala kontatzen digu eta eskulaguntzaren gainean berri zehatzak ematen dizkigu. Guk oraindik ez dugu irakurtzeko aukerarik izan, baina liburu hau ikusi duten denek hauxe esan digute: oso ondo idatzita dagoela eta oso interesgarria dela batipat Soraluzetarrentzat. Bertan garbi ikusten bait dugu gure asaba zaharrek nola egiten zuten lana eta denbora haietako gizarte giroa.

Hauxe da Soraluzeko sendi denak benetan euki behar duten liburua.

T. E.

ERAMAN - EKARRITako  
AGENCIA  
**Transportes A L E**  
EUSKAL IRRATSAIOAK  
ERRI GUTIRAKO  
Telefonoak: 431223 - 437726  
Iparreko, 8 - DONOSTIA

bazkari onaren zarpagarria  
eta txarraren estalgarria

**LA CASA DEL CAFE**  
Juan Jirondo

San Marzial, 19 - Urrut. 433601  
Donostia



YOGUR  
**GURELESA**  
GOGOZKOENA



1973' garren urteko  
lehenengo zozketa

**miloi bati pezeta**

diru  
aurerantze  
saritan

diru sartze-epea,  
joraila'ren 7'a arte



Donosti'ko  
Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

Edozein Libretetan sartzen diran milia pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta Libretan dauz-kazun 5 milia pezetakorik aña zenbaki dagozkizu gainera.

publivas

# ELIZA BIZIDA Eliza eta Jesus Nazaretharra (II)

## GOTZAIK GIZAMAILA ARTEKO BORROKAN

Titulo horrekin, zenbait bat osoa (80. zenbakia) eskaini dio "Frères du Monde" delako aldizkariak, Frantziako Gotzaien Lurdesko Bartzar Nagusian argitaratu emaniko "Politika Kristau Iharduna" delako txostenari.

Gotzaien txosten horretaz, bere garaian, zati bat aldatu genduen sail honetara: II. Kapitula, hain zuzen: "Kristauak, Iskanbilak eta Giza-maila arteko borroka" deritzana.

Aipatu aldizkaria, berriz, Bordeleko frantziskotarren izenpean edo, argitaratzen dena da. Arras ezaguna, gizarte eta Eliza arazoetaz hartzen duen kritika-joera zorrotzaz.

Esan bezala, azken zenbakia, Frantziako Gotzaien dokumentu hori kritikatuaz moldatu dute.

Hurbilgotik ezagutu nahi lukeenarentzat, artikulu baten mamia emanen dut, Olivier Maillard-ek izenpetzen duena, eta egunoro ikusten ez den bezalako tituloz datorrena: "L bavardage des evesques et les chrétiens révolutionnaires"; hots, "Gotzai hitzontziak eta kristau iraultzaileak".

Hona bada, aipatu artikulu horren mamia:

Frantziar Gotzaineriaren dokumentua eta Hego Ameriketako kristau iraultzaileen bi dokumentuak, elkarrekin gonbaratzeko eskatu didate.

Egia esan, hiru dokumentu horiek parez-pare ezin gonbaratuzkoak direla deritzat. Horrez gero, zenbait ohar kritiko jaulkiko dut solki:

### a) Kritika metodologikoa.

Gotzaien joera politika mailan, gizartearen egiturazko aldaketari ekin dioten kristauen joeraren alderantzizkoa da.

Dokumentu horretan, teologia "mota bat" ageri da; ohituraz bezala, "benetako teologia bakartzat" ematen dutelarik, ordea.

Eliza "mota batetik" mintzo dira gotzaiak. Abiapuntua, teologiazko dute: "Jainkoaren irudira sortuak"; Hego Ameriketako kristauen txostenarena, berriz, haragizko munduhau da: "Hego Ameriketako herrien sozio-ekonomiazko, politika-kulturazko egoera". Gotzaiak munduaren megiraile bezala ageri dira: kanpotik begitatzat inketelakoan; kristau iraultzaileak, aldiz, munduaren lohitan nahastekaturik.

Dokumentu hori izenpetu dutenek, ez dute inongo politika eskarmenturik. Esperinetziarik gabe mintzo dira. "Maisu" bezala; eskolako mintzoa darabilate. Ez die buruak eman, kristau herriak beraien zer esanik izan lezakeenki. Eliza, kontesto horretan, ez da elkarrekin, gotzaiak menperaturiko herria baizik.

Dokumentua kristaudentzat besterentzat ez ditekela izan. Kasuistika besterik ez da: "pluralismoaren teologiaren" molde berria. Gizarte borrokan ez nahastea du helburu: bere ez zikintzea, ez konprometitzea.

### b) Mamiaz kritika.

Gotzaiak, politikaz, Ekonomia Politikoko Kritikorik egiteke mintzo di-



Frantziako gotzaiak Lurdesen

ra. Analisisa orde, zerrenda huts bat dagite. Hondo-hondoko sustraira joan orde, egoerak deskribatzen dituzte.

"Pratikara" mugatu nahi da dokumentua. Baina, beste zenbait gauzaren artean, ez du zehazten ez definitzen politika alorra. Halatan, zenbait ohar eta aholkuren nahaste berraste bilakatzat da dokumentua. Izan ere, ez da egiazko praktikarik, teoriariko bilakuntzarik gabe. Dokumentuak ez du prolema bizira jo nahi.

### d) Formaren aldetik.

Ebanjeliozko zat ematen dute dokumentua, "beren" teologiara jotzen dutelarik hura frogatzeko. Egiaz, ordea, sozio-kultura konkretu bati loturiko teologia "mota bat" besterik ez da "beren" teologia hori.

Ez du dokumentuak inolako askapenik iragartzen, gutxiago eragiten. Nerretzat ez du inolako ebanjelio indarririk. Ez naiz jabetzen dakarkeen berri onaz.

e) "Egitez", politikari "buruzko" dokumentu hau, dokumentu politiko bat besterik ez da. Gotzaiak, nahi eta ez, mailatan sailkatutako gizartearen murgildurik dira.

Aginte batetaz horniturik, agintedunekin bat dagite.

Zentroan ipintzen dira, erreformistekin, burgesia txikiarekin: beren segurantz bilatzen dutenekin.

Politikaz gairi daudela uste dute gotzaiak, barru barruan daudelarik.

f) Azkenik, dokumentuak ez du batere eraginik; edo, zerbait baldin bada, jendea politikabidetik saihestertzeko du.

Badirudi, beste Zoriontasun hau asmatu nahi izan dutela: "Zorionekoak politikaririk ez daitenak: bi bider maitatuko bait dituzte horrelakoak gotzaiak".

Gonbara bedi dokumentu hau, gizakia leherturik, hondaturik, han-

kapeturik dagoeneko egoerarekin: horrexek adieraziko du dokumentuaren balio-eza.

Egia esan, komentaturiko Gotzaien Dokumentu hori ez nuen, behin ere, nere baitan hain ezekoi iritzi. Baina, aipatu iritziak eta bestek irakurtzeak, nere buruari galderarik franko ekarri dio.

Hauze datorkit, funtsean, burura: ezagutzen dudun zenbaiten zori beltzean banengo... orain bizi dudun egoeratik ezagutzen dudun beste muturreko askoren zori harroa ezagutuaz, ezagutzen dudun zenbaiten zori beltzean banengo... zein izanen ote litzake nerretzat Ebanjelioaren mezu kenkretua...?

### AMUNSA



Zuzenadaria:  
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

### ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1 IRUINEA  
D. L.: NA. 80-1963

Aurrekoan genionez ez ditaikete besterik gabe Eliza Jesus Nazaretharra sortua denik esan. Ez bat batean perretxikua bezala jaioa denik ere. Jesusek ezarri zituen, genion, Eliza egia-bihur zedin, baldintzak. Gaurko honetan, Jesusek izan zuen asmoa, harek bere bizitzan eginikoa aztertuko degu. Hori batetik, eta bestetik, Elizaren haserak, Eliza nola jaio zen alegia. Elkarrekiko zerikusiaz sortzen diren galderei hurrengoan helduko diegu zuzenki. Eta noski, alderditxo batzuei ikutu besterik ez diegula eginen jakinda.

### JESUSEN ASMOA

Jesus Nazarethkoak Jainkoaren Erreinuia predikatu zuen. «Garala bete da, eta Jainkoaren Erreinuia hurbildu da; bihur zaitezte eta sinets Berri Onari» (Mk. 1, 15).

Jainkoaren Erreinu hori da Jesusen predikatuaren muina. Hurbil den erreinu hau ez da sinestunontzat Jainkoak Jainko denez betidanik guztiarekiko duen nagusigo hutsa. Jainkoaren erreinuia azken denboran Jainkoak guztiarekin bereganatzean datza. Jainkoaren azken ekintza da, eta Jesusek bere burua Jainkoaren azken ekintza horren azken adierazletzat daduka. Jainkoaren azken ekintza hori gainean dugu. Hau adierazten bakar bakarrik jardun zen Jesus. Hontan bakar bakarrik, hontan ordea, buru belarri azkeneraino.

Jainkoaren erreinu hori ez dezake gizonak legea betetzen duela-eta, bereganatu. Ez da gizonaren ekintza huts. Jainkoaren ekintza da. Gizonaren egitekoa Jainkoaren ekintzarekiko irikia izatean legoke. Jainkoaren nagusigotza pekatariarentzat osasun eta osotasun da. Askatasuna da. Israelen pekatari txartlea zutenek ongi bereiziak zeuden. Gizarteaz bertuta zeuden berak ziren, nor ez zirenak, zeri heldurik ez zuten guztiak, izen onaren jabe ere izan ez zitezkeanak. Hauek ohi dira askatasunaren egarri.

Jesusek, Jainkoaren askatasuna, herri guztiari eskeintzen dio. Ez du inolako berezitasunik egiten. Gizarte mailak, kultura mailak, langintza mailak ez du berez garrantzirik. Gizonaren barrenak du garrantzia. Irkitasun hori duen edonork uler dezake eta bereganatu Jainkoaren ekintza. Edonork eta harek bakarrik. Ebanjelioetan garbi agertzen da herri xeheak ohi duela iriki-izate horretarako egokitasun gehien.

Jesusen dotrina eta irakaste guztiak irikitzen eta edozertarako gertu egote honi berez berez dariokena besterik ez da. Beste legerik ez du Jesusek ezagutzen. Gorroto ditu hain zuzen. Aska da eta askatasunaren izenean bakarrik mintzo da. Jainkoagandik datorkion askatasunak zoro huts bihurtzen du. Ez du ezer errespetatzen. Norbere buruagandik ere aske egotea eskatzen du. Askatasun berorren izenean oihukatzen ditu Mendikio Hitzaldiko «astakeriak» (Mt. 5, 1-12).

### JESUSEN TALDEA

Jesus gazte talde batez inguraturik ibiltzen zen herriz herri. Berak zeraman bizitza bera zeramaten hauek. Jesusen garaian baziran talde gehiago ere. Ez zan beraz bakarra. Phariseoak, saduzeoak, zeloteak, Ion bataiatzailearen taldea e.a. Jesusen taldeak bazuen beste guzietatik oso bereizi egiten zuen zerbait. Herriko izen eta herriarentzako. Jesus bera bezala. Ez uen inolako elite kutsurik. Bere predikuan laguntza zitezten bildu zituen Jesusek. Berari jarraitzeko agindua ematerakoan ez zuen erabaki prestua eta latza besterik eskatzen. Ez gertuketa garairik, ez kultura edo jakintzarik, ez ordurarteko bizimoduaren baldintzarik, ez gerorako itxaropen berezirik. Herriko maila guzietatik zetozen haren jarraitzaileak, gehienak kultura gabeak eta esku-lanean zihardutenak zirela kontuan hartzekoa bada ere.

Talde honi ez zion Jesusek bere heriotzaren ondorenerako bizibide eta biziera jakinik ezarri. Ez zion eskola jakinik eman, ez zituan bere predikurako dotrina jakin eta eratu baten jabe egin.

Talde hau guztiz sakabanatu zen Jesus agintarien esku erori zenean, eta gurutzera zeramatela ikusi. Guziz sakabanatu, eta gerora hala behar harko zutelakoan gainera.

### ELIZA PAZKO-GERTAKIZUN

Jesus gurutzatuaren talde hura —eta taldekoak ez ziren «amabiak» bakarrik— Jerusaleñen biltzen da berriro Pazko ondorenean eta predikatzat hasten. Jesus piztu da eta guk ikusi dugu. Jainkoak heriotzaren gainetik ezarri du, Jesus, Jauna da, Kristoa da. Hemen dago Elizaren jaiotzaren karkoa. Sinesmen hau gabe ez dago Elizarik. Ez luke sentidurik. Taldea bildu ere ez zen egingo. Esperientzia berri honetan oinarritzen da Eliza.

Jainkoak heriotzaren gainetik ezarritako Kristoa Jesus Nazaretharra da. Jainkoak Jesus Piztutzerakoan haren bizitza guztia baieztu du, bere hitz eta ekintzak, bere predikua, bere persona guztia. Horregatik da Jesus salbatzaile, horregatik biltzen dira berriro Jesusen izenean. Horregatik dira Jesusen Eliza, Jesusen Jarraila. Horregatik jarraituko dute Jesusek esanikoa zabalduz, harek bere jokabideaz erakutsitakoa eginez. Baina beti Bazkoaren itxaropenean oinarriturik.

Sentidu honetan da Eliza Jesus Nazaretharrak sortua. Ez bere bizitza garaian eratu zuelako. Elizarrak bere pertsonaren jarraila diralako. Jainkoak berbitu zuenetik salbatzailetzat dadukatelako.

Era honetara adieraziz agertu ditekete behar bada egokien Elizaren sorreraren karkoa: Elizak bere sorrera Jesus Kristoagan Jainkoak eginiko guzian oinarritzen du, Jesusen jaiotza bizitza biltza eta berbitzean.

Baina galdeak gelditzen dira hala ere hemen. Jesusek bere bizitzan sortua ez bada ere Eliza, sartzen al zan bere asmatan horrelako zerbait? Bere bezala joko ahal zuen bere berbitzean sinesturik berriro bildu zen taldea? Talde harek, bere teologi berriarekin ere, Jesusen asmoei jarraitu al zien egiaz?

Elizaren lehen eboluzioa Jesusen jokabideari nola lotzen zaion ikusiko degu hurrengoan.

JEXUX MARI MUJKA

## DEPURACION DE AGUAS S. A.



Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01  
Garduniz, 44

BILBAO

# AIZKORA - JOKOA

## Zenbait joko eta ohitura

Pago ezea eta adar begirik gabea erabili ohi da aizkora jokoetan. Paga da egurrik onena joko haue-  
tarako. Berau izan da zuhaitzetan ere ugarienetakoa.

Pinnak ez du balio. Bigunegia da bateti k, baina  
gogorregia bihur diteke dituen adar begi petralen-  
gatik. Ez du espalik ere ematen. Aritza gogorregia  
da. Makala, berriz, bigunegia.

Platanoa da pagoaren antzekoa. 1965garrengo  
Ekainaren 20an Donostiako Trinidad Plaza Polip-  
pasok jokatu eta galdu zuen apustua platanoakin  
zen. Baina ez dio inork jarraitu. Usategietak ere jo-  
katu zuen "Insignis" pinuarekin Jaizkibel mendian,  
1952garrean. Juan Antonio Rezolak ere bai La-  
saoko zipresarekin, baina egia esan ia erabat paga  
erabiltzen da joko denetan.

Enborren neurriak bakarrik ez du apustua era-  
bakitzen. Zerikusi aundia du enborren gogorak eta  
bihurriak ere.

Azkoitiko Luxiak eta Ziordiako Garziarenak au-  
keratutakoak izan dira gure gogoanean gogorrenak.  
Eskuak odoletan, jarioka, zituela lurra jausi zen  
azkeneko enborrean Garziarena.

Geienetan ez da egur bihurregia aukeratzeko. Ez  
enbor ipurdia eta ez enbor burua aukeratzeko dira,  
gerria baizik eren azalez eta agiriko adar begirik  
gabe jarri ohi dir enborrak.

Alaz guziz ere ez da erraz egurraren berri jaki-  
tea. Goiaz eta Bidaniakoak gogor eta bihurri dira.  
Nafarroakoak, berriz, bigun eta leial. Beregisa jai-  
takoak gogoragoak aldatutakoak baino. Badu lurra  
zerikusirik egurraren gogortasunean edo gozotasu-  
nean. Ez omen da berdina udan eta neguan botat-  
akoa ere. Ezta ilberrian edo ilberan moztua ere.

Horregatik da zail markarik onenaz itzegitea. Yu-  
rrebasa barak amalau egunen barruko apustuan oso  
marka desberdinak jarri zituen. 54ko enborra mo-  
zten 45tekoa baino zailago gertatu zitzaion, 12 se-  
gundo gehiago behar izan zituen. Ez da erraz egur-  
raren barruan zer azaldu ditaken ere jakitea: il-  
tzea, burnia, kakoak. Horixe gertatu zen Getarian,  
1954garrengo San Anton festetan Yurrebaso eta Go-  
ñiren arteko jokoan.

Aizkolariaren araberan, egurraren gozotasun edo  
gogortasunean, egurraren loditasunean eta kopuruan  
dago jokoaren gorabehera guztia, eguraldia eta gor-  
putz aldatzea gogooan direlarik.

Era guztietako jokoak egin ditezke, baina badira  
ohiturazko lege batzuk. Oimbeteko eta oimbiko en-  
borren tarteko neurriak erabili ohi dira: 45 eta 54  
ontzakoak. Bana erabili ohi dira beste neurri bat-  
zuk ere.

1965garrengo Urtarrilaren 17an, Donostiako ze-  
zen plazan jokatu zen aizkolariaren txapelketan 60 on-  
tzako amabina enbor ebaki izan behar zituzten. Urte  
bereko ekainaren 13an, Polipaso eta Berakoetxeak  
jokatu zutenekoan, berriz, 16 irurogeiko ebaki behar  
zituzten. Kanakoa erabili zum berriz, Santa Agedak.  
Bi moztu zituen 28 minutuan.

Izan dira neurri arrigarrikoko enborrak. 4.098 kilo

pisa zituen Lasako zipresak. Sei metrotako gerria  
zuen. Baietz amabi ordutan ebaki "Sarrondo" Jose  
Antonio Rezolak, apustu egin zion Andres Lasak  
Luxiari, mila duro. 1954garrengo Apirillaren 13an,  
asteartez, azoka egunez, jokatu zen Azpeitian. Goi-  
zeko zazpiterdian ekin zion "Sarrondo" bere la-  
nari. Baiezkoan zegoen jendea handik iru ordura  
ere. Baina eguerdi alderako odoletan zeuzkan eskuak.  
Erretiratu egin behar izan zuen asi eta 9 ordu, 10  
minutu eta 15 segundotara. Amairu aizkora aldatu  
zituen. Keixeta zuen erakusle.

Baina aundiena agian, "Airoko-pago"arena izan  
da. Bi ordutan ebaki behar zen. Berrogeita hamar  
mila pezeta jokatzeko ziren. Bi metro eta 10 zenti-  
metro lodiko enborra zen. Luxiak artu zuen apus-  
tua. 1949garrengo Uztailaren 25ean jokatu zuen De-  
ban. Beroak leher eraginik erretiratu zen bukatu  
gabe.

Ramon Latasak irabazi zuen Lekeition 5,15 lodi-  
ko eukalitoarekin 1955garrengo Ekainaren 14ean. Lau  
ordutan ebaki behar zuena, iru ordu eta 17 minutu-  
tan ebaki zuen. 5.259 aizkorakadatan bukatu zuen  
enborrikako lana.

Ezetz zotrzi ordutan ebaki 4,50 lodiko makala jo-  
katu zion Luxiak Keixeta zeneran seme Marzelino  
Aranbururi. 1969garrengo Abenduaren 8an jokatu zen  
Azpeitiko zezen plazan. Iru ordu eta erdian bukatu  
zuen lana Marzelinok bere 57 urterekin. Bost mila  
duro zen jokoak.


Beti du lan zailagoa egur aundiak, kanakoa  
esate baterako. Gehiegi balio du neurri hontako egur-  
rak honelakoan gainean ikasten jarduteko. Erraz  
da neurri txikiko egurrekin marka onak jartzea.

Erraz da gero eta marka obeak egitea. Baina aun-  
ditan, kanakotan, ez diote elkarri koska aundirik  
kentzen lehengo eta oraingo aizkolariak.

Baina txikitzen ere alde aundiak atera erazten  
ditu egurrak. 1959garrengo Apirillaren 26an Latasa  
eta Luxiak jokatu zutenekoan Latasak 72 ontzako  
egurrak ekarri zituen. Baina 54 arte mehetu egin  
behar ziren. Hori bait zen apustuak eskatzen zuen  
neurria. Giharre uts geratu ziren beraz egurrak gi-  
zen guztia kenduz gero. Ordu bet eeta bi minutu  
behar izan zituen Latasak amalau enborrak eba-  
kitzen.

Aipagarria da Luxia eta Zabaletak Azpeitian, 1956-  
garrengo Abenduan, jokatu zuten jokoak. Irixten zi-  
ren neurria enborrak, baina bakoitzak bere erara  
jarriak zeuzkan. Luxiak azpijana egin zien barrena  
zorrotuz. Zabaletak berriz, erditik pitzatuak ekarri  
zituen eta bi bazterretan josiak. Aserre zen jendea  
baina apustua jokatzeko utzi zen. Handik aurrera  
federazioak neurri estuagoak artzen ditu eta ohitura  
den bezala jarri behar dira egurrak.

Etzanda jarri ohi dira enborrak jokorako, baina  
zutik direla ere jokatu izan dira. Hala jokatu zuten  
Andoainan 1952garrengo Ekainaren 29an Baleztena,  
Txurruka, Goñi eta Yurrebasok. Donostiako zezen



Enborren neurriak bakarrik ez du apustua erabakitzen.

plazan ere Goñi eta Yurrebasok bi moztualdi eman  
behar zituzten zutikako bati 1954garrengo abuztu-  
aren lea. Latasak zutikakoak eta Polipasok etzan-  
dakoak ebaki behar zituzten Tolosan, 1961garrengo  
Urtarrilaren 8ko jokoan.

Ez da era hontako joko asko egin. Latasak jo-  
katu zion Robert Singleton inglesari Donostiako ze-  
zen plazan 1968garrengo irailaren 12an. Eta Donos-  
tiako Anoetan jokatu zen zutikako enborretan aiz-  
kolariaren txapelketa urte bereko abenduaren 29an.  
Latasak geratu zen txapelketa.

Kanpoko aizkolariaren jokatzearren izan ziren era  
hontako jardunak. Baina ez du era honek zainik  
bota Euskal Errian. Basoan ohitutako jendea eska-  
tzen du. Ikusgarriagoa bada ere ez du besteren  
bizitasunik.

Txapelketa eta sariketan ez baina, apustuaren en-  
borretatik aldatu ohi dira aizkolariak egurrean alderik  
izan ez dezaten. Zoz egiten da nor non asi. Izan  
dira konturatu gabe besteren enborrean asitakoak  
ere. Iturrarte, esate baterako, 1960garrengo Abendu-  
aren laukoan. Aurreneko enborra ebakitakoan ohartu  
zen kontrarioak ebaki behar zuten enborrean ari zela.  
Alaz guztiz ere 8 minutuko aldearekin irabazi zuen.

Bi zerbitzari ohi ditu aizkolari bakoitzak ondoan.  
Edariak, aizkorak, zapiak eman behar dizkio batek  
eskatutakoan. Besteak, berriz, non aizkora sartu eta  
zer galgatan erakusten dio eta espalak kentzen diz-  
kio.

Aizkolariak alde aundikoak direnean berdintzeko  
erak aukeratzeko dira. Bat biren aurka, bat laguntza-  
learekin eta beste gabe, nahi denean edo horren-  
beste ebakitakoan txandatu, edo enborretan alde  
jarriaz. Gogoangarria da Polipaso eta Santiago Zu-  
billagak 1965garrengo Abuztuaren 1ean, Igeldan, jo-  
katu zutena. 54ontzako 6 enbor ebaki behar zituz-  
ten. Baina Polipasok aulkian exerita moztu behar  
zituen.

Beste batzutan denboraren alde eman ohi zaio  
lagunari. 1957garrengo Ekainaren 4an Beasainen jo-  
katu zen aizkora jokoan Yurrebasok minutu baten  
alde eman zion Zeberiori. Biak batera, 14 minutu  
eta 42 segundotan bukatu zituzten 50 ontzako 6 en-  
borrak.

Lehen, enborren erdia moztutakoan bestera al-  
datzen ziren aizkolariak: Aurreneko alde bat eta gero  
bestea ebakitzeko. Bain gaur asitakoa bi aldetatik  
bukatu gabe ez diteke alda.

Orduerdiak ordubetera irauten dute aizkora jo-  
koak. Agia ngogorrenetakoa eta luzeenetakoa, Lata-  
sak eta Luxiak jokatu zuten Donostiako zezen plazan  
1959. Apirillaren 26an.

54 ontzako amalau enbor eta 110ko beste bina  
ebaki behar zituzten. Latasak 115 minutu eta 53 se-  
gundotan amaitu zuen bere lana. Luxiak berriz, 120  
minutu eta 47 segundotan. Bi orduko borroka latza  
izan zen, beraz.

Ikusten denez bakoitzak ondo neurtzen ditu bes-  
tearen ahalmenak. Era guztietako jokoak egin ohi  
dira hori dela eta. Baina halaz guztiz ere badira  
ohiturazko lege jakin batzuk.



Badira ohiturazko lege batzuk.